

PATIOA ETA AHAZTUEN BAZTER AHAZTUAK

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Valor Azurmendi, Ibai

ZUZENDARIA: Gutierrez Ajamil, Estibaliz

2021eko ekaina

LABURPENA

Ikerketa honetan patio diseinu tradizionalak eskaintzen dituen estimuluen urritasuna eta honek bideratzen dituen jarduerak generoaren arabera eragiten duen espazioaren erabilera desorekatua aztertzen da. Gaia teorikoki kokatzeko berrikuspen bibliografiko bat egin da eskoletako patioei buruz, hauen diseinua androzentrista dela ondorioztatuz. Ikerketa honen bitartez teoria horiek enpirikoki baieztatu edo errefusatzeko helburuarekin. Halaber, jolastokietan ematen den protagonismoren banatze hierarkizatuak batez ere generoak baldintzatzen duen aztertu nahi da. Guzti hau frogatzeko ikasleen iritzia ezagutzea lehenetsi da, patioen erabiltzaile nagusiak diren heinean hobekuntzarako bidean agente garrantzitsuenak direla ulertzen dugulako. Helburu horiek lortzeko hitzen bidezko galdetegiak erabiltzeaz gain, haurren ikuspegia ezagutzeko artearen bidezko adierazpena erabiltzea erabaki da, marrazketa alegia. Ikerketa honen emaitzek erakusten dutenez, gaur egungo Lehen Hezkuntzako patioen erabileran generoen arteko desberdintasun ugari azaleratzeaz gain, hauek diseinatzeko eta eraikitzeko ikasleen iritzia, behar eta desioak kontuan hartzen ez direla frogatu dute. Izan ere, ikasleriaren %75-ak patioa ezberdina izatea gustatuko litzaiekela esan du. Ikerketari esker frogatu da, inkestatutako ikasleen %95-a uste duela futbolak jolastokiaren eremu nagusia okupatzen duela. Bestetik, neskek marraztutako irudi indibidualetan %80-ak bere burua jarduera pasiboetan edo mugimendu gutxikoak burutzen irudikatu dute, kirol nagusituak praktikatzeko ez dituzten haurrak soberan dauden izkinatan eta futbol zelai inguruekin konformatu behar direla erakutsiz. Hori gutxi balitz, nesken %20ak, larderia edo beldurraren aztarnak islatu ditu marrazkietan.

Hitz gakoak: Patioaren diseinua, generoa, espazioaren banaketa, marrazkia.

RESUMEN

En objetivo de esta investigación consiste en analizar la escasez de estímulos y el reparto desproporcionado de la utilización del espacio, originada por el diseño tradicional de los patios escolares. Para situar teóricamente el tema se ha hecho una revisión bibliográfica sobre los patios, concluyendo que el diseño de los mismos es androcentrista y se ha establecido como objetivo verificar o rechazar empíricamente esas teorías mediante la investigación. Asimismo, se quiere comprobar si la repartición jerarquizada del protagonismo que se da en los patios está condicionada por el género. Con el fin de comprobar todo esto, se ha priorizado conocer la opinión del alumno, entendiendo que son agentes importante en la búsqueda de la mejora, ya que son los usuarios de dichos patios. Para lograr estos objetivos, además de utilizar cuestionarios escritos, también se ha utilizado el dibujo, entendiendo el arte como un medio de expresión muy útil en la infancia. Como demuestran los resultados, además de encontrar

diferencias en Educación Primaria sobre el uso del patio en base al género, se ha comprobado que para diseñar y crear estos espacios no se tienen en cuenta la opinión, necesidades ni deseos del alumnado. De hecho, el 75% de alumnado dice que le gustaría un patio diferente. Gracias este estudio, se ha comprobado que el 95% de los alumnos encuestados opina que el fútbol ocupa la mayor parte del espacio de juego. Por otro lado, en los dibujos individuales creados por las chicas el 80% se dibuja a sí misma en actividades pasivas o sin apenas movimiento, demostrando que los que no practican dichos deportes mayoritarios deben conformarse con esquinas sobrantes y los alrededores del campo de fútbol. Por si fuera poco, el 20% de las niñas han plasmado atisbos de sentimientos de miedo o intimidación en sus dibujos.

Palabras clave: Diseño del patio, genero, reparto espacial,, dibujo.

ABSTRACT

The aim of this research is to analyze the scarcity of stimuli and the disproportionate distribution of the use of space caused by the traditional design of school playgrounds. In order to situate the subject theoretically, a bibliographic review of school playgrounds has been carried out, concluding that the design of school playgrounds is androcentric. The objective is to empirically verify or reject these theories through research. Likewise, the aim is to verify whether the hierarchical distribution of the protagonism that occurs in the playgrounds is conditioned by gender. In order to verify all this, priority has been given to the students' opinion, understanding that they are important agents in the search for improvement, since they are the users of these playgrounds. To achieve these objectives, in addition to using written questionnaires, drawing has also been used, understanding art as a means of expression. As the research shows, in addition to finding differences in Primary Education on the use of playgrounds based on gender, it has been proven that the opinion, needs and desires of students are not taken into account when designing and creating playgrounds. In fact, 75% of students say they would like a different playground. Thanks to the research, it has been proven that 95% of the students surveyed think that soccer occupies most of the playground space. On the other hand, in the individual drawings created by the girls, 80% draw themselves in passive activities or with hardly any movement, demonstrating that those who do not practice these major sports must be content with leftover corners and the surroundings of the soccer field. As if that were not enough, 20% of the girls have captured glimpses of feelings of fear or intimidation in their drawings.

Key words: Playground desing, gender, spatial distribution, drawing.

Aurkibidea

1. Justifikazioa	4
2. Sarrera	5
3. Marko Teorikoa	6
3.1. Jolastokia heziketa baliabide gisa	6
3.1.1. Ikastetxearen diseinua, bere balioen isla	7
3.1.2. Jolastorduek haurren garapenean dituzten onurak	8
3.2. Patioaren errealitatea	9
3.2.1. Patioen ez-eraginkortasun arazoak	9
3.2.2. Espazioen erabilera generoaren arabera	10
3.2.3. Jolastokiek indartzen duten pasibotasuna	13
5. Metodoa	16
5.1. Ikerketa prozedura	16
5.2. Ikerketa tresnak	16
5.3. Lagina	18
5.2. Marrazkia ikerketa metodo gisa	19
6. Emaitzak	20
6.1. Patioaren errealitatea aztertzen	20
6.1.1. Eskolako patioen behaketa eta deskribapena	20
6.1.2. Ikasleen galdetegiaren erantzunak	21
6.1.3. irakasleen galdetegiaren erantzunak	23
6.2. Patioen erabiltzaileen beharrak, nahiak eta proposamenak ezagutzen: ikasleek egindako marrazkien analisia	25
6.2.1. Banaka egindako marrazkien analisia	26
6.2.2. Taldeko marrazkiak	28
7. Ondorioak	32
8. Mugak eta hobekuntza proposamenak	36
9. Bibliografia	38
10. Eranskina	42
10.1. Ikasleentzako galdetegia	43
10.2. Irakasleen galdetegia	48
10.3. Patioko argazkiak	52
10.4. Taldeko irudiak (Mutilak eta Neskak)	55
10.5. Marrazki indibidualak	60

1. JUSTIFIKAZIOA

Gradu amaierako lan honen gai aukeraketa ulertzeko aurretik izandako practicum esperientzietara atzera egin behar da. Lehen Hezkuntza graduako eta Gorputz Hezkuntzako ikasle izanik, patio edo jolastokietan ematen diren jarduerari arreta jartzea ezinbestekoa egin zait. Jolastokiak sozializatzeko, hizkuntzaren erabileran trebatzeko, ikasgelen zurruntasunetik aldentzeko, jolasteko eta gozamenerako tartea izatez gain, mugimenduaren eta jarduera fisikoaren bidez esperimendatzeko leku aproposa dela uste dut. Aldi berean, adierazi dudan iritzia plazaratzeaz gain ikasleen hitzari bozgorailua jartzea aberasgarria deritzot. Horregatik, arteko GrAL-a aukeratu dut, pertsonen adierazpenerako tresna ezin hobea delako eta disziplinak barneratzen duen marrazketa, haurrek modu naturalean burutzen duten barneko manifestazioa izan daitekeela uste dudalako.

Bestetik, aurretik izendatutako faktoreek eremu hau (patioa) hezigarri eta garrantzitsu bihurtzen dutela uste dut, baina jabetu naiz urteetan zehar eta oraindirarte ez dela horrela ulertu. Jolastoki diseinuen garapen zein egokitzapen ezak espazio honek eskaini dezakeen aukera aberastasuna ukatu die ikasleei, honek indartzen dituen balio zaharkituak iraunaraziz. Nire ikuspuntutik eta ikerketaren ibilbidean murgilduta gai honetan adituak diren pertsona askoren iritziz, berriztatze falta honek, kirola nagusituen praktikorako eta haurrak erraz zelatzeko diseinatu ziren patioetan oinarritu dira, bertan ematen diren desoreka eta ekitate faltaren jarraipena ahalbidetuz.

Jolastorduak behatzen hasi nintzenetik, ikasle nintzenean nire larruan bizitzen nituenak gogora ekartzeaz ez ezik, ikasle batzuk aisialdia behar bezala bizitzeko lekurik gabe gelditzen direla ohartu naiz. Hain zuzen ere, futbolak eta praktika horretarako diseinatuta dagoen eremuak jolastokiaren espazioaren erdialdea eta kasik espazio guztia inbaditzen du. Ez da kasualitatea jolastoki inguruetan soberan dauden txoko txikietan neska gehienak mugimendu eskaseko jardueretan ikustea; izan ere, jakin badakigu kirol konkretu honen praktika gizarteak maskulinizatu duela. Errealitate honek, ez ditu soilik ukatzen mugimenduaren bitartez garatzen eta gozatzen diren esperientziak, gizartearen errotuta dagoen espazioaren banaketa eta kontrol matxista indartzen da ere. Patioa mutilena da.

Desparekotasunak suposatzen duen zentzugabekeriarengatik, gai honi heltzea, aztertzea eta jaso diren datu errealak islatzea interesgarri egin zait. Aldi berean, gizonezko askok ere generoen arteko parekotasuna bilatze aldera, ibilbide hau zailtzen dituzten oztopoak hauteman eta eraldatu nahi ditugula erakutsi nahi izan dut ikerketa apal honetan.

2. SARRERA

Bizitzako edozein esparrutan hobekuntzarako bideak beti dakar egokitzapenaren beharra. Hezkuntza, nola ez, etengabeko berrikuntzetara moldatu egiten da gizarteratze prozesurik egokiena bermatzeko intentzioarekin. Prozesuen eta emaitzen hobekuntza hori lortzeko hezkuntzak borobiltzen dituen eremu guztiak aintzat hartzea eta lantzea beharrezkoa da. Baina, hezigarri diren espazio guztiak bizi izan dituzte eguneratzeko aldaketak maila berean?

Begi-bistakoa da jolastokien diseinuak urteetan zehar aldaketa gutxi bizi izan dituztela. Eraldaketa falta honek desoreka sortu du ikasgelan zein gizarteran lortu nahi diren balio berrikuntzekin eta jolastokiak eskaintzen dituenen artean. Oreka hori lortzetik urrun, Cols eta Fernánde (2016) azaltzen duten bezala, duela hamarkada askoko kirol eremuan oinarritutako patio diseinu honek espazioaren banaketa, bertan ematen diren jardueretan eta sortzen den hierarkiaren orduko balio sexistak indartzen dira. Izan ere, Giménezek (2018) adierazte du, jolastokien espazioaren %70-a kirola egitera bideratzen dela eta horretan soilik ikasleria osoaren %30 aritzen direla, soberan dauden espazio horietan nesken gehiengoak moldatu behar direlarik.

Ikasle askok beraien aisialdia era egokian eta askatasunez bizitzeko pairatzen dituzten aukera murrizketek bidegabekeria bultzatzeaz gain, sedentarismoa, sozializazio arazoak, gaitasun motorren garapen desegokia, jarrera sumisoak eta beste hainbat gaitz indartzen ditu. Mugimendua inplikatzeko duen jolasa ezinbestekoa da etapa honetan; izan ere jolastoki-jolastordua jarduera fisikoa burutzeko denbora eta espazio eremu garrantzitsua izatez gain, gozamenaren bidez aktibotasuna sustatzen dituzten ohiturak barnerratzeko behar-beharrezkoa da.

GrAL honen xedea da jolastokietan nesken eta zenbait mutilen egoerari arreta jartzea, bertan ematen diren bizipenak lehen eskutik ezagutzea, eta irakasle zein ikasleen ikuspegiari adiera ematea. Halaber, kritikotasunez egoera hobetzeko grina piztea ere bilatzen da. Eskuhartze guztietan protagonisten iritzia ezagutzea eta aintzat hartzea ezinbestekoa izaten da. Patioen erabiltzaileak adingabekoak izateak ez du esan nahi hauen ikuspuntua zentzuzkoa ez denik, beraien iruditegia adierazten ez dakitenik, gaiarekiko iritzirik ez dutenik edota honek baliorik ez duela. Honetarako, gakoa da ikasleen ahotsa ezagutzeko tresnen egokitzapen egokia egitea.

3. MARKO TEORIKOA

Marko teorikoa, txostenean zehar aztergai diren eskoletako jolastokiak (patioak) eta hauen diseinua aztertzeko esanguratsuak diren atal desberdinetan egituratu da.. Euskarri teorikoa hiru atal nagusitan banatzea erabaki da: lehenengo atala bi azpiataletan banatzen da; espazioak heziketa baliabide gisa aztertzen duena alde batetik, eta Ikastetxearen diseinuak, bere balioak nola islatzen dituen azaltzen duena bestetik. Bigarren atalarekin, haurren garapenari begira jolastorduek eskaintzen dituzten onurak (frogatutakoak) ezagutarazten dira. Azkeneko atalean, patioaren errealitateari adiera eman zaio, halaber, hauen (ez)eraginkortasun arazoei, generoaren arabera espazioaren erabilera eta banaketa azaltzeari, eta azkenik, jolaserako tarte honek indartzen duen pasibotasunari.

3.1. Jolastokia heziketa baliabide gisa

Patioak ikasgelarekiko alde nabarmenak dituen arren, hau ere hezkuntza elementu bat dela ez dugu ahaztu behar. Ildo honetan, gogoratu behar dugu ikaskuntza norberaren apendizetara hutsa dela; izan ere, gauden tokian gaudela bertan dago ere gure ikaskuntza. Ideia horretatik abiatuta, Andresen (2019) aburuz, eskolako espazio oro (jolastokiak barne) ikasteko gune bezala ulertu beharko lirateke. Hau da, ikasgelako espazio fisikotik haratago ere irakaskuntza eta ikaskuntza daudela ulertzen da. Hain zuzen ere, jolas-patioak duen balio horren zati nagusia dela, naturaltasun eta askatasun maila jakin batekin behatu ahal izango dugula ikaslea, oro har, ikasgelaren barruan mugatuago egoten baitira (Girón, 2016).

Aldiz, gelaren eta kanpoko espazioaren arteko harremanak duen balio pedagogikoa ez da berria, honen oinarri teorikoa XX. mendearen hasierakoa da, Eskola Irekiak sustatutako korrontearen bidez (Pía eta Mayorga, 2017). Korronte horren hasierako planteamenduetan helburu higienistak bilatzen ziren, barne-espazioa bere ingurunearekin integratuko zuen metodologiaren bitartez; izan ere, uste zuten ikasleen prestakuntza orokorrerako, beharrezkoa zela irakaskuntzaren kalitatea ez ezik, irakaskuntza garatzen zen espazioaren beraren kalitatea ere. Pentsamendu horrek patioak, terrazak edo ataripeak sortzea bultzatu zuen, gela eta kanpoko espazioaren arteko lotura hori hobetzeko asmoz (Pía eta Mayorga, 2017). Alabaina, mende bat igaro ondoren ikus dezakegu ikastetxe askok printzipio metodologiko, proiektu edo curriculum edukiekiko aldaketa jarrerak erakutsi dituzten arren, bai gizartearen beraren aurrerapenetik, bai gure garunak nola ikasten eta nola funtzionatzen duen azterlanetatik eratorriak, patioa duela laurogeita hamar urte bezala mantentzen dela (Marín, 2010). Beraz, oraindik ere barrualdeko espazioak ikaskuntzarako direla eta kanpo espazioak energia "husteko" direnaren dualitatea existitzen da. Izan ere, Tonuccik (2017) haurrek onartzen eta aintzatetsi ez dituzten jardueretan gehiegi kargatu diren energiak deskargatzeko

zezen plazak ematen dutela uste du, hurrek eskoletan jolastuz ikasiko balute hauek lasaitzea beharrezkoa ez litzatekeela azpimarratuz.

Azkenik, hau guztiak eskolen hasierako ideia eta hauen eraikuntza ikasgela eta patioa integratzen dituen hasierako baldintzan oinarritzen ez direla islatzen du (Pía y Mayorga, 2017). Jokabide honek eragiten du jolastokia eskola eremuaren barnean dagoen espazio bezala onartzea, baina hezigarri bezala ulertzen diren eremuetatik kanpo mantenduta, patio horren eta eskolak aurkezten duen curriculum-proiektuaren arteko erabateko deskonexioa eraginez (Marín, 2010). Gainera, ikastetxe gehienetan ikus dezakegu patioen diseinuak berak islatzen duela bere xede nagusia eta bakarra: kustodiarako leku izatea, zaintza eta kontrol premisetan oinarrituta (García, Urda, Leal eta Blas, 2017). Gauzak horrela, irakasle askok patioa gatazka potentzialeko gune gisa ikusten dute, bai bere izaera propioarengatik, bai bertan egiten diren jarduera motengatik, eta, ondorioz, mehatxu gisa ikusten da aukera gisa baino gehiago (Marín, 2016). Hala ere, ezin da alboratu jolastokia berez espazio hezitzailea dela, Marínek (2016) berak *Elspatis de les eszoles* informean dioen bezala, patioak hezkuntzarako gunea da, jolasaren garapenerako beharrezkoa den denbora espazioa, espazio fisikoa eta espazio sinbolikoa eskainiz.

3.1.1. Ikastetxearen diseinua, bere balioen isla

Eskolaren eraikina gizarte bakoitzaren balio garrantzitsuen irudikapena da. Geure ikastetxeen jolastokien diseinua aztertuz gero, zer balio mota ari gara transmititzen ikasleei? Zer ikasten dute eskolako eraikinak erabiltzerakoan? Horri so eginez, autore desberdinek duela hamarkada batetik hona, aldarrikatzen dute kanpo espazioen kalitatearen eta bertan egiten den eskaintzaren inguruan hausnartzeko beharra. (Trueba eta De Pablo. P, 1994; Miranda et al., 2014; Cols eta Fernandez, 2016).

Ohikoa da eskolen eta kartzelen artean ezarritako analogiak entzutea. Hain zuzen, Michael Foucaultek (1979) ezartzen zuen ospitalea, espetxea eta eskola direla gizartean diziplina ezartzeko funtsezko antolakuntza erakundeak. Zentzu horretan, ikus daiteke nola eskoletan muga arkitektonikoa ezarri direla, itxiera eta isolamendu sentzazioa iradokitzen dituzten elementuetan oinarrituta. Ezin dugu ahaztu, eskolaren eta kalearen arteko “bitartekari” lana egiten duen elementu nagusia burdin hesia dela. Are gehiago, elementu horrek literalki eskolatik ateratzea galarazteaz duena eta, kanpoaldearekiko babesa eskaintzen duena delarik erreparatzen badiogu. Aldi berean, muga eta bereizketarako elementu horrek berarekin dakar ikastetxetik hurbil dauden kalitatezko espazio publikoak ez aprobetxatzea (García, Urda, Leal eta Blas, 2017).

Bestetik, eremuaren zedarriztapenetik at, errealitatea da jolastokien testuingurua gehienbat kiroltarako diseinatutako espazioez osatzen dela denboran mantendu den pilotazko jokoek monopolizatua (Giménez, 2018). Izan ere, futbola eta honetatik eratorritako jolasak, jaun eta jabe dira ia jolastoki guztietan.

3.1.2. Jolastorduek haurren garapenean dituzten onurak

Jolasten diren haurrek beraien jarrera, oreka eta koordinazioa bezalako gaitasun motorrak hobetzen dituzte, osasun hobetzen duten bitartean. Horretaz gain, gizentasuna edo gainpisua gutxitu eta sistema inunologikoa sendotzen baita (Fjortoft, 2001, 2004). Gainera, Fdzila eta Said (2010), edota Mårtensson et al.(2009) baieztatzen dutenez, jolastokian aire librean jolasten aritzea lagungarria da haurrak arazo eta gatazkak konponketan trebatzeko, beren arreta handitzeko eta baita, sormenena pizteko. Era berean, Canningek (2010) babesten du, espazio irekian irudimen aktiboa garatzeko aukera dutela haurrek. Orobat, Fdzila eta Saidek (2010) sustengatzen dute, gune aproposa da esplorazioa, arakatzea, jakin-mina eta haurren parte hartzea bultzatzeko, zein haurren garapen integrala bermatzeko. Bestalde, maiz baieztatu da umeak espazio ireki edo, ez itxietan egoteak, zein hauetan jolasteak dituen onurak eta, horregatik, askotan aztertu da eremu honen eta haurren garapenaren dimentsio anitzen arteko erlazioa (Fdzila eta Said 2010; Fjortoft 2001, 2004; Moser eta Martinsen 2010).

Garapen motorrari dagokionez, jolastokian jardutea baimentzen du orekaren, koordinazioaren eta bestelako gaitasun motorren lanketa eta, giharren lanketa, zein hezurren sendotzea, bertan aukera baitago oztopen gainetik salto egiteko, materialak jasotzeko, botatzeko eta saihesteko, besteak beste (Early Head Start National Resource Center, 2013; Fjortoft 2004, 2001; Gray, et al., 2015). Bestalde, Heziberri 2020k dioenez, konpetentzia motorraren lanketak oinarritzko beste konpetentziak garatzeko funtsezko ekarpenak dakartzala dio. Bai jolasean, bai kirolean eta adierazpen gaitasunak lantze aldera, gorputzaren jokabide motor baten arabera mugitzea ezinbestekoa da. Jarduera horiek burutzean sentitzen dituen emozioak identifikatu, ulertu eta hitzez eta hitzik gabeko baliabideak erabiltzeko gai izan behar da ikaslea.

Garapen kognitiboari erreparatuz, jolastokia lagungarria izan daiteke esperimendazioaren bitartez, ikasgeletan ikasitakoarekin loturak egiteko, eta horrela, esanguratsu bihurtzeko, kausa-eraginaren erlazioa errazago ulertzea ahalbidetuz. Gainera, ikasgelatik at ematen den esperimendazioa, era naturalean susta dezake, adibidez, bolumena, pisua, distantzia eta beste kontzeptu matematiko askoren ulermena (Early Head Start National Resource Center, 2013; Fjortoft 2001, 2004; Gray et al., 2015). Piageten ikerketetan ere

egitura mental eta ekintza ludikoen arteko lotura azpimarratzen da. Jolasa tresnatzat hartuta, umea egoera ezberdinen aurrean kokatzen da. Haurrak egoera horietan moldatzeko eta hauek gainditzeko konponbidea bilatu behar du, inguruaren eta norberaren arteko oreka bilatuz. Jolasak memoria, sormena, arreta, irudimena eta pentsamendu zientifiko, garapen matematikoa eta sortzen diren elkarrizketek hizkuntzaren garapenean laguntzen du (Gutierrez, 2009). Bertan, komuneko interesek aukera ematen dute hiztegi berria eta jarioasuna lantzeko (Early Head Start National Resource Center, 2013 eta Fjortoft 2001, 2004).

Alderdi afektiboa-sozialaren ildotik, jolasak sortu dezakeen plazerretik hasita eta ematen diren gatazketaraino, mugimendua emozioekin lotzen da nahitaez. Grase eta Paredesek (2015) diote jolastorduek gatazkak konpontzen ikasteko abagunea eskaintzen dizkiela ikasleei, nor bere akatsetatik ikasiz eta pertsona orekatu bezala hezteko. Dударik gabe, adimen emozionala lanketa eta garapena ezinbestekoa da garapen integralerako eta nor beraren identitatearen garatze aldera. Umeek beraien izaera era askeagoan adierazten dute irakasleen gida eta jarraipena txikiagoa delako. Gainera, ikasleen arteko elkar-ekintza oso altua da tarte horretan, bizikidetzarako balio garrantzitsuak jasotzen direlarik (Pica, 2008). Izan ere, Paredes eta Grasek (2015) ere ondorioztatzen dute, jolastokia sozializatorako elementu garrantzitsua da ikastetxeko dinamikaren barnean, bertan hasten baitira haurren gaitasun sozialen, afektibitatearen eta enpatiaren garapenak.

3.2. Patioaren errealitatea

3.2.1. Patioen ez-eraginkortasun arazoak

Umeentzako pentsatuta al daude patioak? Artigasek (2016) honela deskribatzen du ohiko jolastokia: “patio grisa. la azalera guztia okupatzen duen pista erraldoia. Eguzkiak zuzen eta kiskaltzailea jotzen duen lekua. Itzalik gabe. Pilota eta bere betiko gatazketatik at joko gutxirekin. Pintura higitua duten muralekin eta ezer jaiotzen ez den lorategiekin” (Artigas, 2016, 7. or.). Antolin et al. (2017) eusten dutenez, hezkuntza zentroetan zementuzko patio gogor eta hotzak egoten dira dira eta, oro har, gure jolastokiak estalkirik gabeko espazio sinpleak izan ohi dira, batez ere kirol eremu ireki eta zabalez osatuak, ikasgeletatik eta kaletik isolatuak. Gainera, espazio horiek normalean babesgabeak izaten dira, oso handiak edo txikiak, zurrinak, gogorak eta kolore grisa (edo ez irristatzeko pinturak duen kolorea) nagusi dutenak. Diseinu horrek, jolasaren garrantzia arinkieriaz artzea eta lausotzea eragin ohi du (García, Urda, Leal eta Blas, 2017). Diseinu hori, azken finean, barruko ikasgelaren eta kanpoko jolastokiaren arteko dualtasunaren isla besterik ez da, bi errealitate desberdin balira bezala eta bata bestearekin zerikusirik ez duenaren ideiarekin.

Beraz, zer helbururekin diseinatu dira patio horiek? Zein eskola arduratu da, benetako erabiltzaileentzako horiek hornitzeaz, haurrentzako espazioak izan daitezen? Tonuccik (1997) sostengatzen du baita, sarritan, bereziki haurrentzat zuzenduta dauden kaleko eta ikastetxeko jolas guneak nagusiek eta nagusientzako diseinatzen dituztela. Jolastoki diseinuaren homogeneotasunarengatik eta originaltasunaren faltagatik bereizi ohi dira; guztiak kointziditzen dute ezerosotasunean, eremu mugatuetan eta ezin hobeki nibelatutako lurzoruetan. Horrela, zoru lau hauek ahalbidetzen dute irakasleek zailtasun handirik gabe haurrak jagotea. Bitxia da, ordea, UNESCOren hezkuntza eta espazioen gidan (1999) eta, honen harira, ikastetxeetako jolastorduetarako guneetan eta patioen diseinuan desnibel hauek kontuan hartu behar direla. Jovék (2017) azpimarratzen du, ikus dezakegun harresia jartzeko erabiltzen den arrazoia (haurraren babes) patioetako lurzorua planteatzean ere erabiltzen dela, baina ez da kontuan hartzen lurzoru hori hormigoizko izateak erorketarako duen desegokitasuna. Eskolako barne/kanpo espazioen dualitatera bueltatuz, gelak atseginak eta beroak izan daitezen apaintzen dira, baina hori, antza, ez dirudi jolastokira eramateko interesik dagoenik. Izan gainazal monokromatikoa duten patioetara ohituta gaude eta ez dira beste jolastoki mota posibleetan pentsatzen.

3.2.2. Espazioen erabilera generoaren arabera

Jolastokiaren diseinua sexista al da? Denboran zehar iraunarazi den jolastokiaren diseinuak gabezia asko uzten ditu agerian, baina dudarik gabe, gabetasun nabarmenatarikoena generoen arabera eragiten dituen desoreka da. Egia da, arazo honek ez duela jatorri ikastetxeko jolastokia soilik, eta ez da ezberdinkeria honen eragile bakarra. Honen harira, Saldañak (2018) sostengatzen du gizartearen balioen isla espazioetan ematen dela. Gauzak horrela, ikastetxeetako jolaserako eskaintzen duen espazioetan balio horiek erreproduzitu, planifikatu, kudeatu, eraiki eta bizi egiten dira. Argi dago, beraz, inguru sozio-espazial horrek bazterketa, zein botere erlazioak erreproduzitzen dituela. Espazioaren banaketa honetan, mutilen nagusitzea eta nesken gutxiestea ahalbidetzen duen dikotomia espaziala babestu egiten du, espazioaren kontrola maskulinizatua dagoela agerian utziz.

Dudarik gabe, jaiotzen garenetik jasotzen dugun genero hezkuntzak erabateko eragina du gugan (Larramendi, 2016). Emakume, zein gizon gisa hezteak eragin zuzena du gure mugitzeko, adierazteko eta harremantzeko moduan. Honek guztiak espazioaren okupazioan berebiziko eragina du. Fresnedok (2016) sostengatzen du historian zehar gizonezkoei akzio eta mugimendu ekintzak sustatu izan zaizkiela, eta horren eraginez, espazio nabarmenki handiagoa hartzera daramatza. Txanponaren beste aldean, atseginak, politikak, lasaiak, maitagarriak, zaintzaileak eta, bigarren plano batean, besteen beharren zain egotea

balioztatzea exijitzen zaie neskei. Gainera, oro har, emakumezkoei haurtzarotik esleitzen zaizkie edertasunarekin lotutako jarduerak; hau da, konpromiso motor urria duten ekintzak (Gallastegui, 2018). Faktore hauek neskek erabiltzen duten espazioa mugatzen dute. Era honetan, neskek espazioan egotera ohitu egiten dira, baina inoiz ez zaie eremu horren kontrola izaten irakasten.

Subirats eta Tomék (2007) salatzen dute ikastetxeak gizartea eta kulturaren parte diren heinean, hauetan errotuta dagoen sexismoa bertan ere ikusgai dagoela. Eragileak ez dira bakarrik ikasleen jokamoldeetan hautematen; adibidez, ikastetxeetako jolastokien diseinuan ere antzeman daitezke genero ezberdinkeriak indartzen dituzten hainbat faktore. Hau da, Larramendik (2016) dionez, jolastorduetan ikasleen jokabideak aztertzen baditugu, gizartean errotuta ditugun genero rolak erreproduzitzen direla jabetu gaitzke. Saldañak (2018) ildo berean gehitu egiten du azken hamarkadetan burututako ikerkuntzek patrio sexistak deskribatzen direla eskolaren baitako sozializazioan; patioak, ikastetxe eremuan desberdintasun gehien antzematen den lekua delarik.

Jolastokiaren diseinuari txostenen honekin aitortu nahi zaion garrantziari erreparatuz, esan behar da futbol zelaiek (kirol honen eratorriak barne) eta, saskibalo zelaiek, jolaserako eskaintzen den espazioaren erdigunea eta eremuaren zatirik handiena okupatzen dutela, askotan, hauen praktika jarduera motor eskusiboa bihurtzen delarik. Jolastorduko dinamika eta ekintzak baldintzatzen dituzten kirol praktika hauek, kulturalki edo tradizionalki, mutilek burutzen dituzte oro har, eta honek eragiten du espazioaren azaleraren zatirik handiena mutilek hartzea. Hau da, neskentzako gelditzen den lekua urria da, eremuaren iskinetan eta bazterretan kokatzen direlarik (Larramendi, 2016). Beraz, esan genezake generoaren araberako zeregin eta erantzukizunen menpe daudela espazioaren banatze eta erabilera. Baiezatu dezakegu ere, guneak neutroak ez direla eta diskriminazio egoerak sor ditzaketela espazioak ikasle batzuei edo besteei egokitzerakoan, hauen erabilpena baldintzatuz. Gainera, diseinu honek bultzatzen duen generoaren araberako segregazio espazialak hierarkizazioa indartzen du (Valentine, 2003)

Futbolak genero rolen arteko bereizketa nabarmendu egiten du espazioari eta ekintza motari dagokionez. Kirolak, eta futbola bereziki, aisialdi aktiboa, eta gaitasun motorren lantze aldera dituen onuraz gaina, hezitzaileak ez diren jarrerak ere bultzatzen ditu. Mazónek eta Garcíak diotenez (2005), jolastorduko ohiko jarduerak jarrera bortitz edo oldartsuak sustatzen dituzte, horien artean gehiegizko lehiakortasuna, gaitasun fisiko hobea daukatenen gorapena, estrategia eta taktika garapena eskasa, kooperazio eza, indibidualismo gehiegi, kideekiko enpatia gutxi, sormenaren lanketa urria eta generoaren aldetik aniztasun eskasa. Garcíaren

ustean ere (2016), patioaren diseinu tradizionalak kirola jolasarekiko gailentzen du, eta autore ezberdinek azaltzen dutenez, patioa baldintza horien arabera neskak eta futbola gogoko ez duten mutilak baztertzea dakarrela (Epstein, Kehily, Mac an Ghail, Redman, 2001; Gallastegik, 2018).

Hots, nesken ohiko jolas eta ekintzek jolastokian lekua bermatzeko zailtasun handiak dituzte, eta mutilen eremua kirol hegemonikoen praktikarako diseinatua egotea, neskak inbadituak, eremuak inbadit irainduak, laidotuak eta baloiarekin astinduak izateko arriskua dakar. Hau da, neskak eta zenbait mutil kasu batzuetan, beraien ikaskideengandik arbuatuak izaten dira, bazterketa sentsazioa pairatzen dutelarik (Garay, Vizcarra eta Ugalde, 2017). Bai mutilek bai neskek garatzen dituzten joko-jolasak genero aldetik erabat estereotipatuak daude, sailkapen hierarkikoa bultzatzen bait da mutilek burututako jarduerak (batez ere futbolak) neskenak baino garrantzia handiagoa hartzen dutelarik. Gurea bezalako gizarte patriarkal batean, espazioak sexu bat bestearen gainetik jartzen duen kultura sexuatuaren eraikuntzak eraten ditu, gizon eta emakumeen estatus-desberdintasunak indartzen dituzten praktikak sortuz (Weisman 1994; McDowell, 2000). Beraz, jolastorduetan genero desberdintasuna gailendu egiten da, eremuko baliabideek eta, honen antolaketak, ez dutelako neska eta mutilen aukera berdintasuna bermatzen (Bonal, 2014). Izan ere, Saldañak (2018) dioen moduan, eremu bat jarduera zehatz batekin lotzen denean, beste jolas batzuen garapena eragotzi eta mugatzen duen lurralde kontrola ezartzen da. Ildo beretik Weismanek (1994) eusten du gizonen nagusitasuna eta emakumeen gutxiagotasuna definitzen dituzten espazio-dikotomia horiek gizonen lurralde kontrolaren eta dominazioaren bidez babesten eta mantentzen direla.

Patioaren banaketa sexista dela jasotzen du ere Eusko Jaurlaritzako hezkidetza eta genero indarkeriaren prebentzio planak (2013). Bertan, azpimarratzen da mutilak, jolas eremuaren erdialdea hartzen dutela, neskak bazterretan moldatzera behartuta daudelarik. Aurreko hamarkadetan kirolari haurren aisialdia bideratzeko aitortu zitzaion garrantzia iraunaraziz, kirolentzako guneei (gehienbat futbolari) eskaintzen zaion espazioaren eta gainontzeko jardueretan erabiltzen den espazioaren arteko desoreka nabaria da; adibidez, baloirik gabeko jolasena edota natura-guneena. Horregatik baieztatu dezakegu, nagusiki, eremuarekiko eta bertan dauden gainontzeko hurrekiko "mutilen jolasak" inbaditzaileak izaten direla. Neskak aldiz, inguruan soberan dauden txokoak hartzen dituzte, leku aldatze gehiago eginez eta hauetan egiten dituzten jarduerak egokitzeko beharra izaten dutelarik. Saldañak (2018) dio gehien bat jolas sinbolikoa, solasaldiak edo jesarrita egotea eskatzen duten jarduerak burutzen dituztela neskek.

3.2.3. Jolastokiek indartzen duten pasibotasuna

Gaur eguneko gizartean, gainpisua eta obesitatea osasun publikoko arazo errealak bihurtu dira eta hauen ehunekoa igotzen ari da mundu osoko populazioaren artean. Munduko Osasun Erakundeak (2010) ezartzen dituen jarduera fisikoaren inguruko gomendioak betetzen ez dituzten haurren ehunekoa altua da (MOE, 2010). Patioaren diseinuak indartzen dituen egoerak, teknologia eta aisialdi ohitura berriei, bizitzaren erritmoari edota astiaren okupazioari gehitzen badizkiegu, umeen egunerokoak sedentarioagoak eta aktibitate gutxiagoak bihurtzen ari direla uka ezina bilakatzen zaigu (Hernandez, 2010).

Eguneroko jarduera fisikoak barne hartzen dituen bizimodu osasungarriagoa bultzatu behar da herrialde garatuetan epidemia bihurtzen ari den sedentarismoa eta honek eragiten dituen gaixotasun, zein arazo fisikoak ekiditeko. Besteak beste, García (2016) eta Serraren (2014) ikerketen arabera, eta jarduera fisikoari begira, jolastorduak garrantzia handia hartzen dute Lehen Hezkuntzako ikasleentzat. Autore hauek ikerketen datuek adierazten dute, adin tarte honetako haurrak nahiko aktiboak dira jolastordu tartetan; izan ere, bertan, egunero gomendatzen den jarduera fisikoaren %23a egiten dute. Egun, patio orduetan ikasleek egiten dituzten jarduerak aztertuz, ondorioztatu da, neskek, mutilek baino energia gastu urriagoa izaten dutela. Beraz, jolastorduak nesken egunerokotasuna mutilena baino bi aldiz sedentarioagoa bilakatzeko faktore bihurtzen dira (%16,3 nesketan, % 8,3 mutiletan).

Denbora igaro ahala, haurren sedentarismo eta ohitura osasuntsu faltagatik (eragile gehiagoren artean) osasun arazoak hazten ari dira (Jackson, Morrow, Hill eta Dishman, 2003 eta Ezquerro, 2016). Serrak (2014) jakinarazten digu ere inaktibitate hau denbora luzez ematen denean gaixotasun ezberdinen arrisku faktore garrantzitsuenetarikoa bihurtzen dela. Pasibotasuna osasun publikorako arazo larria bilakatzen ari denez, une historikotzat ulertu daiteke gure gizartean; izan ere ez da orainarte haurengan horrelako kasuistika masiborik eman. Halaber, estuan hamar umetik, hiruk gainpisua daukate, gorputzaren garapen ezak dakartzan beste jokabide nahasmenekin batera (Garcia, 2016). Gainera, jarduera eza, hilkortasun arrisku faktoreetan laugarren postuan dago %6-arekin; hipertentsioaren, tabakoaren kontsumoaren, odolean gehiegizko glukosaren eta gainpisua eta obesitatearen aurretik (MOE 2010).

Jackson, Hill, Dishman (2003) adierazten dute, haurrek gaur egun burutzen duten jarduera fisikoa beharrezkoak diren kaloriak erretzeko nahikoa ez dela. Gauzak horrela, Garciak (2016) dioenez, uka ezina da eskolak paper garrantzitsua hartzen duela, umeek zentroan igarotzen duten ordu kopurua oso handia delako eta kurrikulumetik kanpo gelditzen

diren denbora tartea ere barnebilduz (batik bat jolastorduak), beharrezkoa den jarduera fisiko eta ohitura osasuntsuen barneratzea bermatzeko primerako aukera da. OMS-en arabera, gomendagarria da 5 eta 17 urte bitarteko haurrek egunean gutxienez 60 minutuko intentsitate ertain edo altuko jarduera fisikoa burutu beharko lituzkete. Gainera, jarduera hori, gehien bat, aerobikoa izatea komeni da. Horretaz gain, eta maila beran, astean zehar gutxienez hiru alditan, muskuluak eta hezurak indartzeko jarduera kementsuak txertatzea garrantzitsua da (MOE, 2010).

Bestalde, Dymont eta Bellek (2008) eusten dutenaren ildoan, ikastetxeek kirol instalakuntzak eskaini arren, jolastokiak muga anitz sortzen dituzte jarduera fisikoaren sustapenean, izan ere, ez dira kontuan izaten kirol gidatu horiekiko interesik ez dituzten ikasleak. Hau da, espazio bat kirol jakin bat praktikatzeko hornitzea ez du jarduera fisikoa eta alderdi motorraren inplikazioa ziurtarazten. Apika, aurkako ondorioa sustatu dezaketeela pentsatu daiteke, Garciak (2016) dioen bezala, jarduera lehiakorak eta intentsitate handikoak izanik, hain aktiboak ez diren haurren inplikazioa hastantzen delako. Beraz, bazterturik gelditzen diren ikasleriaren gehiengo nabaria neskak direla jakinda, esan daiteke jolastokien atontzea estereotipo sexistetan oinarrituak dagoela. Hau da, neska asko espazio nahikoa lortzeko ezintasunak eta jarduera inbaditzaileetatik at egoteak eta, mutil batzuk aktibitate gutxi izatea eta aspertzea dakar. Serrak (2014) ohartarazten digu, LH-ko kurtsoetan gora doazen heinean, nesken jarduera gero eta pasiboagoak burutzen dituztela, jolasak baztertzen dituztelarik. Ondorioz neskak patioaren inguruetako bazterrak zeharkatzen ibili ohi dira, liskarrak saihestuz eta lehiakortasun eta mugimendu gutxiko jolasetan arituz.

Orain arte ikusi denez, gaur egungo ikastetxeek dituzten patioen diseinuek arazo asko azaleratzen dituzte. Hala ere, gaur egun badaude jolasguneak bizitzeko modu berriak aztertzeaz kargu egin diren aditua eta erakundeak, eta jolastokiak hobetzeko asmoarekin sortu diren proiektuak, adibidez, eskolako espazioak eraldatzeko proiektu pedagogiko eta parte-hartzailea den Elkartoki. Eskolako jolastokiaren eta espazio komunaren konfigurazioan eta dinamiketan lanketa bilatzen duen programa da. Espazioaren eraldaketarako programa honetan ikasleak dira eremu komunaren antzaldatzearen buru, era aktiboan eta auzolanean eginez. Gainera, elkarbizitza eta balio bameratzaileak lantzen dituzten sorkuntza artistiko zein arkitektonikoak sortu eta eraikitzea bilatzen du.

4. HELBURUAK

GrAL honekin patioei buruzko egoeraz hausnartzeko datu berriak lortu nahi dira, Lehen Hezkuntzako ikasleen iritziak kontuan izanik. Tonucciren arabera (1997), haurrei ez zaizkie gustatzen zurrunki definitutako espazioak, erabat bereziak eta erabilera eksklusiborako direnak, non helduak aurrez ezarritako erabilera bakarreko elementuak nagusitzen diren. Gainera, eskolen eraikinak eta espazioen antolaketan pentsatzerakoan, normalean ez da kontuan izaten umeen ikuspuntua (erabiltzaileena, alegia). Askotan, ikasleen iritzia baliabide mespretxatua izaten da, estigmatizatua eta, era berean, didaktika eraginkorrek bilatzeko probetxurik gabea, eskuarki askatasun osoz jokatzeko nahiago izaten baitugu. Horregatik, ikerketa honetan patioari buruzko teoriak umeen iritziekin alderatu nahi izan dira, ikasleriaren ikuspuntua goraiatu eta duen garrantzia emateko asmoarekin.

Atal honetan, GrAL-a gidatu duen ikerketa galdera eta lortu nahi izan diren helburu orokorrak zein espezifikoak islatu dira. Irakurlearentzat atalaren ulergarritasuna bermatze aldera, argitu behar da, ikerketa galderak, gizartean espazioen kontrol maskulinizatua kontuan hartu dela, jolastokietan errealitate hori betikotzen dela frogatzeko asmoarekin.

Ikerketa galderak: Patioaren diseinuak baldintzatzen du generoaren arabera bertan ematen diren espazioen kontrola eta aisialdi jarduerak? Honekiko Ikasle-erabiltzaileen ikuspuntua teoriekin bat egiten du?

Helburu orokorrak	<ol style="list-style-type: none">1. Patioen diseinua androzentrizta dela esaten dituzten teoriak baieztatzea edo ezeztatzea.2. Patioen diseinuak generoaren aldetik aisialdia baldintzatzen duen frogatzea.3. Patioaren diseinuarekiko umeen iritziak, beharrak eta ikuspuntuak ulertzea.
Berariazko Helburuak	<ul style="list-style-type: none">- Patioaren diseinuari buruzko gaur egungo errealitatea eta horren inguruko gaur egungo teoriak ezagutzea.- Jolastorduan genero ezberdineko ikasleen beharrak eta nahiak zeintzuk diren ezagutzea.- Marrazketak Lehen Hezkuntzako ikaslegoaren iritzi eta ikuspuntuen adierazpenerako tresnatzat baliagarria den frogatzea.- Patioari buruzko Lehen Hezkuntzako ikaslegoaren iritzia ezagutzea.- Patioari buruzko Lehen Hezkuntzako irakasleen iritzia ezagutzea.

1.taula: Ikerketaren helburu orokorrak eta berariazko helburuak

5. METODOA

Tarte honetan, GrAI-aren helburuak lortzeko jarraitutako metodoa deskribatzen da. Metodologia azaltzea xede duen atalean azpiatal hauek islatu dira: ikerketa prozedura, lagina, marrazketa haurraren iritzia ezagutzeko tresna gisa erabiltzearen justifikazioa eta ikerketa tresnen deskribapena.

5.1. Ikerketa prozedura

Aurreko ataletan azaldu den bezala, ikerketa honen asmoa adituen teoriak umeen iritziekin alderatzea eta hauen bidez patioak hobetzeko proposamenak aberastea da. Horretarako, lehenik eta behin, jolastokiak eta ikasleen beharrak jorratzen dituen ikerketa bibliografiko sakona egin da. Ondoren eskola konkretu baten jolastokiko espazioen diseinuak, umeen arteko harremanak eta espazio horien erabilera aztertzeko behaketa jarraia egin da. Ikerketa, ikuspegi eta esparru ezberdinak kontuan izanik burutzeko, hurrengo tauletan adierazi diren jarduera eta tresnak erabili dira.

Ikerketaren alderdi enpirikoa aurrera eramateko metodologia mistoa erabili da, prozedura desberdinak erabiliz:

- Alderdi kuantitatiboan, ikasleen eta irakasleen iritzia jaso dira galdetegiaren bidez, hauen emaitzen analisi estatistikoa eginez.
- Alderdi kualitatiboan, jolastokien inguruko Lehen Hezkuntzako umeen beharrak, nahiak eta hobekuntza proposamenak jaso nahi izan dira, horretarako umeen marrazkiak erabiliz, hauen iruditegiaren analisisa egin ahal izateko.

5.2. Ikerketa tresnak

Patioen argazkiak	Ikus-entzunezko antropologiaren esparruan, eskolak kulturalki eskuratutako praktikak aztertzeko edo etnografiak garatzeko tresna egokiak dira argazkiak (Pink, 2007). Argazkien erregistroa egitea eta horretatik abiatuz, hezkuntza eremuan narratibak sortzea baliabide oso egokia da (Bautista, Rayon eta De las Heras, 2012). Horregatik, jolas gune guztien euskarri grafikoa sortu da. Perspektiba eta angelu ezberdinetatik ikastolak, Lehen Hezkuntzako ikasleentzat eskaintzen dituen jolastokien argazkiak (<i>3. eranskinean</i>).
--------------------------	---

<p>Ikasleen galdetegia</p>	<p>Ikasleei zuzendutako inkestak 12 baieztapen jasotzen ditu. Irakasleen galdetegian erabilitako diseinua eta arauak jarraitu dira. Tresna honetan ikastola bereko eta 5. mailako ikasleek emandako ikuspegiari adiera eman zaio. 95 erantzun jaso dira. 8 esaldi komunak dira ikasle guztientzat. 4 baieztapen, generoaren arabera, mutilek edo neskek erantzun dituzte (2 neskek eta beste 2, mutilek). Aurreko galdetegian bezala, erantzunak balio absolutuetan eta erlatiboetan adieraziko da.</p>
<p>Irakasleen galdetegia</p>	<p>Irakasleei zuzendutako inkestak 11 baieztapen jasotzen ditu, eta esaldi hauekin parte-hartzaileak bat datozen edo ez ezagutzeko Likert eskala bat diseinatu da, kasu honetan 4 adostasun mailetan sailkatuz erantzunak (1; guztiz ados. 4; guztiz kontra), neutraltasuna erakusteko aukera eman gabe. Tresna honekin ikastola bereko jolastorduko zaintzak burutzen dituzten eta espezialitate ezberdinetakoa 14 irakaslek emandako iritziak jasoko dira. Erantzunak balio absolutuetan (erantzuna aukeratu duten irakasle kopuru zehatza) eta erlatiboetan (inkestatu den irakasleria kontuan hartuta erantzun zehatz hori aukeratu duten irakasleen portzentaia) adieraziko da.</p>
<p>Ikasleen marrazkiak Banakako irudiak</p>	<p>Haurrei “beraien burua gaur eguneko patioan” etxean eta banaka irudikatzea eskatu zaie, intimitatean eta kideen aldetik jasotako estimulu eta eraginik gabe egitea bermatzeko. Irudiak ikerketan era anonimoan islatu diren arren (<i>ikusitako x. eranskina</i>) ikerlariak egilearen izena ezagutzen du, irudietan genero ezberdineko iruditegia erkatu ahal izateko (aztertu, konparatu...).</p>
<p>Ikasleen marrazkiak Taldeko irudiak</p>	<p>Ikasleen “beraien patio ideala eta honek izan beharko lituzkeen elementuak irudikatze eta antolatze” proposatu zaie, talde handia bi generoen arabera banatuz, ikasgelako arbelean bi “horma-irudi” eraikitze: bat mutil taldearena eta bestea neskena. Talde lanean marraztu ahal izateko ikasleek elkarlanean aritu behar dira, txandak negoziatuz eta ideiak partekatuz (edo ez). Ikerketa baliabide honen bidez, irudiaren emaitza ez ezik, taldeko sortze-prozesuaren behaketa ere egin da, hala nola, marrazte prozesuan eta elkarrizketan jasotako iruzkinen, zein jarreraren azterketa aurrera eramatea.</p>

Behaketa koaderno	Ikerketaren xede den jolastordu jarraipenaren zorrotasuna bermatze aldera, behaketa eta elkarrizketetan jasotako informazioan oinarritutako koaderno osatu da. Idatziz eraikitako euskarri hau ikerketaren bi atal ezberdinetan erabili da: Patioaren eguneroko zaintzeren behaketa eta, neskek eta mutilek bi taldeetan bereizita egin duten arbeleko irudian. Baliabide hau ikerketatresnarik erabiliena izan da iraupen eta jarraipenaren aldetik; izan ere, hamar astetan zehar jolastorduetan, jarduera eta jarrera aipagarriak, errepikakorak, bitxiak eta adierazgarrienak biltzeko erabili da. Koaderno honetan ere taldeko marrazketaren jardueraren jarraipena egiteko erabili da, ikasleekin izandako elkarrizketetan eta arauen azalpenetan jasotako inpresioak eta iruzkin esanguratsuenak jasotzeko.
--------------------------	--

2.taula: Ikerketa tresnen deskribapena

5.3. Lagina

Ikerketa, Bilbon kokatzen den Kirikiño Ikastolan burutu da. Ikastolaren eragin-guneak Santutxu, Bolueta, Begoña, Txurdinaga eta Otxarkoaga auzoak hartzen ditu. Zonalde hau 60.000 biztanle inguruko eremua da. Zentroak hiru lerro edo ikasgela ditu kurtsoa (guztiak D ereduan) eta, Haur Hezkuntzatik Batxilergorako ikaskuntza eskaintzen du. Hau da, urtero, 1000 ikasle inguru izaten ditu.

Ondorengo taulan, ikusgai daude ikerketa ahalbidetu duten jardueretako parte-hartzaileak:

JARDUERAK	PARTE-HARTZAILEAK
IRAKASLEEN GALDETEGIA	<ul style="list-style-type: none"> ● Lehen Hezkuntzako 14 irakaslek burutu dute. ● Parte hartu duten irakasleek jolastordu zaintzak egiten dituzte. ● Irakasleak espezialitate ezberdinakoak dira.
IKASLEEN GALDETEGIA	<ul style="list-style-type: none"> ● 5. mailako ikasleak. ● 95 erantzun. ● Ikasgela mistoak.
ARBELEKO TALDE-ARGAZKIAK	<ul style="list-style-type: none"> ● 5. B ikasgelako haur guztiak. ● Bi marrazki edo horma-irudi sortu dira. ● 10 neskek taldeko marrazki bat egin dute. ● 16 mutilek taldeko marrazki bat egin dute.

BANAKAKO MARRAZKIAK	<ul style="list-style-type: none"> ● 5.B ikasgelako ikasleak. ● 22 ikasleren irudiak jasota. ● 12 mutil 10 neska (neska guztiak)
---------------------	---

3. taula: Ikerketaren lagina

5.2. Marrazkia ikerketa metodo gisa

Metodologiaren barruan, umeak egindako irudiei garrantzi handia eman zaie, haurtzaroan marrazkia komunikabide bikaina izan daitekeelako. Marrazkia haurraren adierazpide bat denez, modu askean egin ahal izateak oztoporik gabe komunikatzeko aukera ematen dio, eta, horrela, bere izateko eta sentitzeko modua argi eta garbi azaltzen du. Hau da, Salvadorren (1985) aburuz, umeak lehengo trazua asmatzen duenetik bere sentimendu eta emozioak islatzen ditu, hauei irteera landua emanez. Beraz, irudiketa tresna baliagarri bilakatzen da haurraren ikuspegiari adiera emateko; ikusten duguna ez da soilik mundutik hartzen dugunaren funtzio bat, horretaz pentsatzen dugunarena baizik (Eisner. 2004). Bestalde, marrazkia ikerketa tresnatzat erabiltzeko irudiaren bi zentzuak izan behar ditugu kontuan: egilearena (kasu honetan ikasleak) eta ikuslearena (ikertzaile edo behatzailea). Egilearen kasuan, Barrios (2011), Piadgeten teoria jarraituz, adierazten du irudia dela jolasa eta irudi mentalaren arteko garraibidea. Autore honen aburuz irudiaren bidez (umearentzat joko delarik: gozameneko eta plazerrerako ekintza atsegina), umeak berak hautematen duen bezala errealitatea irudikatzen ikasten hasten da bizitakoarekin eta bizitzen dituen esperientzia propioekin erlazionatuta. Gainera, Machonen (2009) esaten duen moduan, marrazketak ingurua behatzera eta honetaz hausnartzera bultzatzen du umea, eta honek bere eskarmentu eta esperientzian eraiki dituen kontzeptu formalak erabiltzen dituela (ez bisualak) irudiaren bitartez “gauza” zehatza irudikatzen. Lehen Hezkuntzan egindako ikerketa izanda, erabaki da informazio hau jasotzea, umeen ikuspuntutik “marraztera jolasten” duten bitartean, hau da, gustuko duten jarduera ezagun baten bitartez.

Irudiaren behaketan edo analisi kualitatiboari begira, jakin badakigu marrazkiaren exekuzioan antzeman daitezkeen espazioak, formek, koloreek, ehundurek, sentsazio kinestesikoek eta ikusizko esperientziek adierazteko estimulu ugari adierazten dituztela (Lowenfeld eta Brittain, 1972, 45. or.). Gainera, haurra bera bere marrazkiaren barneratuta dagoela eta, aldi berean, ikuslea eta aktorea dela (Lowenfeld, eta Brittain, 1972 46. or.).

6. EMAITZAK

Esan bezala, GrAL honetan metodologia mistoa (kuantitibo eta kualitatiboa) erabili da ikerketa-tresna ezberdinek ahalbidetzen duten ikusmira aniztasuna ziurtatzeko eta jasotako emaitzak uztartzeko. Atal honetan, horien bidez lortu diren emaitzak adierazi eta interpretatu dira, eta hurrengo egitura jarraitu da datuak adierazteko orduan: lehenengo atalean, egoera errealaren analisia egin da; bere barnean patioaren deskribapena, ikasleen iritziaren eta irakasleena jasotzen dituzten bi inkesta bereiztuak daudelarik. Bigarren atalean, erabiltzaileen beharrak eta nahiak ikasleen irudi indibidualen bidez eta taldean egindako marrazkien bidez jasotako emaitzak aztertu dira.

6.1. Patioaren errealitatea aztertzen

6.1.1- Eskolako patioen behaketa eta deskribapena

Tarte honetan, ikastolako patioen deskribapen egiteaz gain, Covid egoerak eragin duen antolaketa laburki deskribatuko da. Covid 19aren aurretik, adieraziko diren espazioetan era librean mugitzeko aukera zuten ikasleek.

Ikertutako ikastolak bi zonaldeetan bereizten ditu jolastordurako espazioak Lehen Hezkuntzako ikasleentzat: Ikasgaien ordutegiekin egiten den bezala, jolastorduak ere badu ikasgela bakoitzari dagokion eremua markatzen duen egutegi bat. Egutegi horrek, euririk gabeko egunak edo egun euritsuak diren arabera ikasleak leku irekietara edo aterpetara bidaltzen ditu, hurrenez hurren. Bigarren zikloko ikasleek (4., 5. eta 6. mailakoek) ordutegi berdina partekatzen dute jolastorduetarako. Hau da, 11:00 eta 11:30 tartean 240 ikasle inguru bertaratzen dira jarraian deskribatuko diren eremuetara.

Lehendabiziko jolastokia LH eraikinaren aldamenean dagoen eremua da. Gune honek espazio ezberdinak eskaintzen ditu. Alde batetik, hormigoizko futbito/eskubaloi zelai urdin bat eta, bestetik, zoru berdina duen saskibaloi zelai txiki aterpetua (3. *eranskinean*). Futbito zelaiaren parean gradak eta, hauen luzera eta hiruzpalau metroko zabalera duen aterpea aurki dezakegu. Bi zelai hauetatik, korridore batek batuta, aipatutako aterpeguneekin batera, egun euritsuetan aritzeko eskolak duen frontoi/kiroldegi itxira joan gaitzke. Eremu oso honetan egiten den banaketa hau da: Kurtso oso bat, futbito zelaiena; marra itsatsiek hiru azpigunetan banatzen dituelarik (graden ondoan dagoen eremuan egokitu zaien ikasleek gradetan egoteko baimena dute). Bigarren kurtso bat, saskibaloi zelai txikian (bi ikasgela) eta, ikasturte horretako hirugarren ikasgela, graden gainean dagoen aterpean. Hau da, LH-ko eraikinaren ondoan bi kurtso banatzen dira. Hirugarren kurtsoa, osotasunean, DBH eta Batxilergoko ikasketak

burutzen diren eraikinean integratuta dagoen patioa joatea daukate. Bertan, hormigoizko saskibaloia zelai handi ireki bat eta, zelai hau partzialki inguratzen duen "L" itxurako aterpe bat dute. Aterpe honek ere, hiru eta lau metro tarteko zabalera du. Zelaia bitan banatzen duen marra bi ikasgela zelaiean aritzean ahalbidetzen du. Hirugarren taldeak aterpe osoa du. Aterpeak mahaiak, bankuak eta kalerako begiraleku txiki bat du.

6.1.2. Ikasleen galdetegiaren erantzunak

Atal honetan patio horien erabiltzaileen iritzia jakin nahi izan da, horretarako LHko 5. mailako ikasleekin galdetegi online bat erabiliz. Jarraian hauek emandako erantzunen analisia jasotzen da:

Hasteko, eta kirol batzuk era hegemonikoan jolastorduetan duten presentziaren harian, futbolekin edo saskibaloian aritzeaz gain, patioak jolas ezberdinak egiteko eskaintzen duen aukera aberatsa den ezagutu nahi izan da, eta ikaslegoaren herena baino gehiago ados ageri da. 38 (%40) parte-hartzailek ados daudela esan dute, eta 28k (%29,5), aldiz, erabat ados daudela. Bestalde, patioak eskaintzen dituen alternatibak anitzak direnaren aurka adierazi dira; 15 (%15,8) aurka eta 14 (%14,7), guztiz aurka. Bestetik, jolastorduetan ematen diren jardueretan mutil eta neska gehienak elkarrekin jolasten duten jakin nahi da, eta ikasleen hiru laurdenak esaldi horrekiko adostasuna erakutsi du. 15 (%15,8) ikasle adostasunez adierazi dira eta 57(%60), ordea, guztiz ados. Beste muturrean, bakarrik 23 ikaslek uste dute jolastorduetan neskak eta mutilak batera ez dutela jolasten. 15 (%15,8) ikasle baieztapenaren aurka daudela esan dute eta 8 (%8,4) ikaslek, guztiz aurka daudela.

Genero desberdintasunak aztertzeko asmoarekin, jolas eremuaren okupazioaren aldetik ezagutu nahi izan da ea orokorrean neskek jolastorduetan espazio gutxiago erabiltzen duten. Baieztapen honekiko adostasun, zein ezadostasunak, nahiko orekatuak dira, baina hala ere, 4 aukeretatik nabarmenki aukeratuena, guztiz aurkako ikuspuntua adierazten duena izan da 37 (%38,9). 17 (%17,9) ikasle aurka adierazi dira, 28 (%29,5) ados eta, 13 (%13,7), guztiz ados. Ondoren, orokorrean jolastorduetan mutilak neskak baino gehiago mugitzen diren jakin nahi izan da, eta mutilen mugimendu kantitatea handiagoa dela adierazten duen esaldiarekin $\frac{2}{3}$ ados daude. 32 (%33,7) ikasle ados daude eta, beste 32 (%33,7), guztiz ados. Beste muturrean, 21 (%22,1) ikasle baieztapen honen aurka adierazi dira eta 10 (%10,5), soilik aurka. Bestalde, jarduera pasiboagoei adiera emanez, batzuetan, marrazkiak, koloreztatze mandalak edo klaseko zein etxerako lanak egiten dituztenak neskak izaten diren frogatu nahi izan da. Berrito ere, emaitza parekatuak islatu dira. Aipagarria da aurkako ikuspegitik erantzunen gehiengoa muturrekoa dela; 37 (%38,9) guztiz aurkakoak eta 14 (%14,7)

aurkakoak direlarik. Adostasunaren aldean, erreakzioa moderatuagoa da, 10 (%10,5) guztiz ados agertu dira, 34 (%35,8) ados agertu direlarik.

Ikaslegoaren genero ikuspegia ezagutzeko, mutilak eta neskek banatuta patioan asko mugitzen diren ezagutu nahi izan da. Mutilen artean, 2 (%3,1) guztiz aurka eta 4 (%6,2) aurka agertu diren arren, gehiengo nabarmenak, esaldiak dioena sustengatu du; 37 (%56,9) guztiz ados eta 22 (%33,8) ados. Mutilek uste duten bezala, neskek ere ulertzen dute patioan asko mugitzen direla. 19 (%44,2) neska esaldiarekin guztiz ados daude eta 16 (%37,2), soilik ados. Gutxi batzuk, 7 (%16,2) aurka eta bakar bat (%2,3) aurkako iritzia adierazi dute.

Ondoren, jolastorduetan patio ia guztia futboleant aritzen zirenek okupatzen duten frogatu nahi da, eta baieztapenarekiko iritzia kasik ahobatezkoa izan da. 2 (%2,1) ikaslek guztiz aurkako iritzia erakutsi duten arren eta bakarrak (%1,1), baieztapenak dioenaren aurka dagoela esan duen arren, beste guztiak esaldiak dioena babestu dute; 9 (%9,5) ados eta, 83 (%87,4) erabat ados. Aurreko frogaketaren ildotan, futboleant aritzen direnen ia guztiak mutilak direla frogatu nahi izan da eta, berriro ere, adierazpenarekin adostasuna nagusitzen da nabarmenki. 64 (%67,4) ikasle guztiz ados ageri dira eta, beste 25 (%26,3), ados. Bakarrak (%1,1) erakutsi du guztiz aurkako iritzia eta 5ek (%5,3), aurkako. Jarraian, futbolaren elementurik garrantzitsuenarik gabe (baloia) jolastorduetan zer egin ez dakiten jakin nahi izan da, neskek eta mutilak banandurik. Neskek adierazpen hau ia ahobatez errefusatu dute. 34 (%79,1) neska guztiz aurka daude eta 5 (%11,6), aurka. Adostasuna adierazi dutenak gutxi dira; 3 (%7) ados eta bakarra (%2,3), guztiz ados. Mutilak ere, baieztapen honekiko ezadostasuna adierazi dute. Mutilen bi herenek, esaldiaren aurkako iritzia adierazi du; 36 (%56,3) guztiz aurka eta 6 (%9,4) aurka. Egia da, nesken kasuan ez bezala, heren batek adostasuna erakutsi dutela; 14 (%21,9) ados eta 8 (%12,5) guztiz ados.

Azkenik, patioa ezberdina izatea gustatuko litzaiekeen ezagutu nahi izan da, eta baieztapen honetan, aurreko bietan ez bezala, adostasuna erakutsi du ikasleen gehiengo nabariak. Hiru laurden patioa ezberdina izatea gustatuko litzaiekeela dioen esaldiarekin bat datozeela adierazi dute; 54 (%56,8) guztiz ados, 18 (%18,9) ados dauden bitartean. Bestalde, 17 (%17,9) ikasle kontra eta, 6 (%6,3), guztiz kontra daudela esan dute.

Datu kuantitatibo horiei zentzua emateko, lortutako informazioaren interpretazioa egin nahi izan da ere. Hasteko, oso aipagarria da galdera estrategikoak erabiliz ikasleen kontraesan handiak agerian gelditzen direla. Hasierako galderetan jolastokiek futbola edo beste kirolen praktikatetik at aukera aniztasuna eskaintzen dutela esaten dute eta, neskek zein mutilak elkarrekin aritzen direla ere adierazten dute. Gainera, ikasleriaren erdiak baino gehiago uste

du neskek ez dutela espazio gutxiago hartzen jolastorduetan. Baieztapen horiek berehala kolokan jartzen dira, Covid 19-aren ondorioz ezarritako arauen aurretik jolastorduan gertatzen zena burura dakartenean. Futbolak ikastolako patioak monopolizatzen zituen galdetzen zaienean, ia ahobatez (%95-etik gora) onartzen dute egia dela. Era berean, jarduera horren praktika burutzen zutenak mutilak zirela aitortzen dute. Beraz, generoen arteko jolas harremana, espazioaren diseinuak eskaintzen duen aberastasuna eskasak direla eta neskek leku gutxi hartzen dutela ondorioztatu daiteke.

Bestalde, ikasle gehienek adierazten dute jolastorduetan asko mugitzen direla. Egia da, neska batzuk eta baita mutil gutxi batzuk ere, baieztapen horrekin ados ez daudela esan dute. Berrito ere, eta ikerketan burutu den behaketari erreparatu gabe (soilik galdetegian oinarrituz), zaila dirudi, espaziorik gabe mugimenduaren kantitate eta kalitatea ziurtatzea. Jolastorduetan ematen diren jarduera pasiboagoak aipatzen direnean, adibidez, etxerako lanak egitea, marraztea edota mandalak koloreztatzea ia ikasleriaren erdiak uste du neskek direla jarduera hauek burutzen dituztenak eta beste erdiak, ordea, baieztapen hau ukatzen du. Hemen ere, ideia kontrajarriak azalera irteten dira. Estatikoagoak diren jarduera hauek jolastokietan ematen dira, baina mutil gehienak futboleko aritzen direla onartuta, argi dago neska askoren eta mutil gutxi batzuen esku gelditzen direla praktika hauek. Halaber, bai neskek, bai mutil gehienek adierazi dute baloirik gabe ere zer egin badakitela, baina mutilen artean, laurden batek aitortu dute, baloirik ez dutenean ideiak agortzen zaizkiela.

Emaitzen interpretazioari amaiera emateko, azkeneko baieztapenean jasotako erantzunak erabat adierazgarriak dira. Hau da, futbolzale asko daudela, jolastokia harremanetarako eta jolaserako gunea dela eta, eskola eremuan ikasgelatik kanpo egoteko aukera dela kontuan izanik, bosgarren mailako ikasleen artean gehiengoak egungo jolastokia aldatu nahi dutela aitortzea oso adierazgarria da. Beraz, haurren premiei, zein iritziei adiera handiagoa emateko beharrean gaudela hausnartu dezakegu.

6.1.3. irakasleen galdetegiaren erantzunak

Ikasleekin egin den bezala, patioari buruzko LHko irakaslegoaren iritzia jakin nahi izan da ere, horretarako beste galdetegi bat sortuz. Horren bidez, lehenik eta behin, jolastorduak harremanak sortzeko eta finkatzeko tarte garrantzitsuak diren jakin nahi izan da, eta irakasleen erantzuna ia ahobatezkoa izan da. 13 irakaslek (%92,9) esaldiarekin erabateko adostasuna adierazi dute eta, bakarrak (%7,1), esandakoarekin guztiz kontra dagoela. Bigarren baieztapenarekin aldez, jolastokiaren kontzeptua eta honen diseinua zaharkituta dagoen galdetu zaie irakasleei. Kasu honetan, 10 irakasle (%71,4) baieztapenarekin erabat ados azaldu dira. Beste 3 (%21,4) ados eta, bakarra (%7,1), esandakoaren aurka. Ez da guztiz

kontrako adierazpenik egon. Ondoren, patio diseinuak bereziki, futbolaren praktika ahalbidetzen duen eta kirol hau praktikatzen ez duten ikasleentzako espazio urria gelditzen delala pentsatzen duten ezagutu nahi izan da eta, berriro ere, gehiengo nagusiak, baieztapenarekin adostasuna erakutsi du, 8 irakasle (%57,1) erabat ados eta, beste 4 (%28,6), ados agertu direlarik. Bestetik, aurkako iritzia izan duten 2 irakaslek horrela adierazi dute; irakasle batek (%7,1) esaldiaren guztiz aurkako iritzia erakutsi du eta beste batek (%7,1), soilik, aurkakoa.

Bestetik, futbolearen aritzen diren ikasleen artean, gehiengo nabarmenena, mutirik diren baieztatu edo ezeztatu nahi izan da, eta esaldi honekiko, irakasleak komuneko adostasuna adierazi dute. 13 irakaslek (%92,9) erabateko adostasuna erakutsi dute eta 1ek (%7,1), ados dagoela azaldu du. Jarraian, jolastokian neskek espazio gutxi hartu ohi duten ezagutu nahi izan da, eta baieztapenarekin adostasun nabarmenki orokortua adierazi du irakasleriak. 8 irakasle (%57,1) erabat ados eta 5 (%35,7) ados daudela erakutsi dute. Bakar batek (%7,1), guztiz aurkako iritzia erakutsi du. Aurrekoarekin lotuta, espazio hauetan neska askoren solasaldia oso aktiboa ez dela antzeman duten jakin nahi izan da. Kasu honetan, inkestak proposatzen duen esaldi honekin gehiengoa ados dago. 3 (%21,4) irakasle erabat ados daude eta beste 7 (%50) ados. Aldiz, beste 3 (%21,4) irakasle ez dute baieztapena egizat hartzen eta honen aurka adierazi dira. Batek (%7,1), baieztapenarekiko guztiz aurkako ikuspegia duela adierazi du.

Jolastorduetako ematen den beste auzi bati helduz, irakasleak baloiaren erabilera mugatzearekin bat datozen ezagutzea izan da helburu. Mugatze honekin 10 irakasle bat datoz; 6 (%46,2) irakasle erabat ados agertzen dira, 4 (%30,8) soilik ados daudelarik. 4 irakaslek ordea, esaldiarekin ezadostasuna erakutsi dute; 1 (%7,1) guztiz kontra ageri da eta 3 irakasle (%21,4) kontra. Debekuen ilduan, Jolastokiaren diseinua kontuan hartuta (futbito zelaiak eta saskibaloi zelaiak direla), baloia debekatzean kontraesanik ikusten duten jakin nahi izan da, eta aipatu diren baldintzak kontuan izanik, debeku hori kontraesan bezala ulertzen du irakasleriaren 2 herenak baino gehiago. 4 (%28,6) irakasle guztiz ados daude, 6 (%42,9) ados dauden bitartean. Beste aldetik, 3 (%21,4) irakasle kontra adierazi dira, 1ek (%7,1) guztiz aurkako iritzia azaleratu duen bitartean.

Patio diseinuari helduta, jakin nahi izan dugu diseinu horrek bertan burutzen diren jarduerak ez al dituen baldintzatzen, eta 7 (%50) irakasle (laginaren erdia) ezeztapenaren aurka agertu dira; 5 (%35,7) guztiz aurka eta 2, aurka (%14,3). Hau da, 7 (%50) irakasle ezeztapenarekin ados daude; 6 (%42,9) aurka eta 1 (%7,1), guztiz aurka. Beraz, lehenengo aldiz, parekotasuna agertu da erantzunetan. Hala ere, guztiz aurkako iritzien artean eta

erabat ados daudenen artean, alde nabarmena dago. Gainera, jolastokien diseinu eta antolamendua berriztu eta eraldatu behar direla uste duten ezagutu nahi izan dugu. Lehendabiziko baieztapenarekin gertatu den bezala, erantzuna ahobatezkoa izan da irakasleriaren artean. 13 irakasle (%92.9) erabat ados daudela adierazi dute, bakar bat (%7,1) aurka dagoen bitartean. Hau da, jolastokietako berriztapena beharrezkoa dela uste dute irakasleek orokorrean. Bukatzeko, antzeman nahi izan dugu ekitatea, aukera aniztasuna eta parte hartze handiagoa eskaintzen eta bultzatzen dituzten patioak beharrezkoa dire uste duten, eta berriro ere, honekiko adostasuna partekatzen dute ia irakasle guztiek. 13 irakasle (%92.9) erabat ados daudela adierazi dute, bakar bat (%7,1) aurka dagoen bitartean.

Aurreko emaitzetan ikusi dezakegunez, ikastolako irakasleriak jolastordu (denbora tartea) eta patioak (eremu fisikoa), ikasleen sozializazio prozesuan garrantzitsuak direla aitortzen du. Zentroak jolastokiekiko duen kontzeptua, zein LH-rako eskuragarri dauden patioen diseinua, zaharkituta daudela uste dute irakasle gehienek. Beraz, esparru hau garrantzitsutzat ulertzen duten heinean, patioen antolakuntza eta diseinuak berriztatu behar direla ondorioztatzen dute. Bestalde, kontraesan bat azalera da, irakasleriaren erdiak esan duenean jolastokiaren diseinuak, bertan aurrera eramaten diren jarduerak baldintzatzen ez dituztela; izan ere, gehiengo nagusiak onartu du, patio diseinuak kirol zehatz batzuen praktika bultzatzen duela, oro har, futbola eta bere deribatuena. Futbolak jolastokiaren espazioa eta dinamika monopolizatu egiten du, kirol honetan aritzen ez diren ikasleentzako eta gainerako jostaketa motorrentzako espazioa erabat urritzen duelarik. Irakasleak hauteman dute, futboleant aritzen diren gehiengo nabarmena mutilak direla eta honek eragiten duela, espaziorik gabe gelditzen diren ikasle gehienak neskak izatea. Hau da, neskek jolastorduetan leku gutxi hartzen dutela eta beraien jostaketan mugimenduaren agerpena eskasa dela onartzen du gehiengoak. Hori dela eta, aurretik adierazi den bezala, estimulu gehiago eta ekitatea sustatzen duen diseinu berria beharrezkoa dela ulertzen dute irakasleek. Bukatzeko, askotan, futbolak duen pisua orekatzeko baloiaren debekua ezartzen da eskola askotan. Kasu honetan, irakasleak neurri honen alde adierazi dira nabarmenki, baina jarraian, gehiengoak onartu dute, patioak espezifikoki duen diseinuak debeku hori kontraesan bilakatzen duela.

6.2. Patioen erabiltzaileen beharrak, nahiak eta proposamenak ezagutzen: ikasleek egindako marrazkien analisisa

Aurreko atalean eskolako errealitatea ezagutu da, hau da, eskola baten patioen diseinua eta bai ikasleek bai irakasleek horri buruz duten iritzia. Atal honetan berriz, ikasleriaren edo patioen erabiltzaileen ikuspuntuetan sakonduko da, horretarako haiek sortutako irudietaz baliatuz. Lehenengo eta behin gaur egungo jolastorduen ikuspegi

subjektiboak jaso dira, eta ondoren patioen diseinuetarako erabiltzaileen nahiak, beharrak eta proposamenak.

6.2.1. Banaka egindako marrazkien analisia

Norbanako jolastorduaren irudia ulertzeko, parte-hartzaileei “beraien burua gaur eguneko patioan” etxean eta banaka irudikatzea eskatu zitzaaien. Ondoren, jasotako marrazkien analisi kuantitatiboa egin da interesatzen zitzaizkigun kategoriaz zehatz batzuk kontuan hartuz, hurrengo taulan ikusten den bezala:

BANAKAKO MARRAZKIAN BEHATUTAKOA	GENEROA	
	MUTILAK (12)	NESKAK (10)
Jarduera fisikoa eta Mugimendua	8 (%67)	2 (%20)
Estatikoa / pasiboa	4(%33)	8 (%80)
Futbol zelaiaren presentzia	8 (%67)	8 (%80)
Gradetan kokatu du bere burua	0	5 (%50)
Talde mota (kopurua)	(ez da eskakizuna gainontzekoak marraztea)	
Bakarrik	5 (%41,7)	3 (%30)
3 pertsona edo gutxiago	3 (%25)	3 (%30)
4 pertsona edo gehiago	4 (%33,3)	4 (%40)
Taldekatze mistoa adierazi du	0	1 (%10)
Sentimendu idatziak	1(%8,3)	5 (%50)
Larderia edo intimidazioaren presentzia	0	2 (%20)

4. taula: Banaka egindako marrazkien datuak

Modu berean, irudien interpretazioa egin da, marrazki gehienetan identifikatu diren joerak azaltzeko. Hauen barruan, espazioaren diseinua ardatz moduan hartuz, argi dago futbol zelaiaren presentzia kasik irudi guztietan errepikatzen dela, marko teorikoan adierazitakoa berretsiz. Hamasei ikaslek egin diote erreferentzia futbol zelaiari modu grafikoan eta, nesken irudietan, are presenteago dagoela ikusi daiteke (% 80 hain zuzen ere). Galdetegian frogatu den bezala, mutilak dira futboleko aritzen direnen gehiengoa, beraz, neskek inguruko

espazioetan egotera ohitu egiten dira. Horregatik, Futbol zelaiaren aldamenean dauden gradak garrantzia handiagoa hartzen dute neskentzat mutilentzat baino. Nesken artean, erdiak marraztu du bere burua gradetan, mutilek bigarren mailako elementu bezala irudikatu dituzten bitartean (batzuetan ez dira agertzen).

Bestalde, jolas eremu horietan burutzen diren jardueri erreparatzen badiogu, mugimendua deskribatzen duten marrazki dezente gehiago egin dituzte mutilek. Hamar neskatik zortzik irudikatu dute ekintza pasibo edo estatikoa eta soilik bik adierazi dute nolabaiteko jarduera fisiko dinamikoa. Aldiz, mutilen kasuan, bi herenek mugimendua erakusten duten jardueretan barne irudikatu dute beraien burua. Taldekatzearen azpiatalean eta marrazkietan agertzen diren pertsona kopuruei adiera jarritz, oso banatua dago irudien bilduma; bakarrik, hirunaka, launaka edota talde handiagotan irudikatu dira antzeko proportzioetan. Taldekatze kopuruan aniztasuna agertu den arren, hogeitabi ikaslelik soilik batek (neska batek) marraztu du generoaren aldetik multzokatze mistoa. Hau da, irudiak aukera eman du berriro ere galdetegiaren hasieran mutilak eta neskak oro har batera egoten direnaren baieztapena errefusatzeko.

Marrazketa moduan islatutako adierazpen grafikoaz gain, zenbait ikaslek idatzizko mezuak ere jarri dituzte. Onomatopeiak, gol ospakizunak etab alde batera utziz, patioan bizi dituzten sentsazio eta emozioak iruzkin moduan idatzi dituzte. Begi-bistakoa da neska gehiagok erabaki dutela horrelako mezuak adieraztea ; izan ere, erdiak islatu du ikuspegia pertsonala idatziz. Berriro ere kontraesanak eta berrespenak agertu dira. Izan ere, bi neskek jolastorduan sentitzen duten poztasuna adierazi dute, beste batek bitarteko iritzia eta, azkeneko biek asperraldia edo deserosotasuna. Mutilen artean ordea, bakar batek adierazi du modu honetan. Azkenengo honen kasuan, dibertsiorik ez dagoela adierazi du. Esaldi honi buruz galdetu zaionean, baloiaren debekuari eta espazio muga berriei (Covid 19 neurriak) atxikitu die jostaketa ezaren errua.

Bukatzeko, bi neskaren irudietan marrazketa eta bertan adierazitako testua uztartartuz jolastokiaren alderik ilunena azalera da. Alde batetik, neska batek eztabaida bat idatziz jaso du. Bertan, mutil batek gauzak *“horrela dira”* argudiatuz eta neska delako, futbol zelaitik botatzen du, berak bidegabekeria etsipenez hartzen duelarik. Bestetik, larderia kasurik deigarriena grafikoki adierazi du beste neska batek. Bertan, futbolak, baloiek, mutilen jarduerak inguratzen dituzte, hiru neskak korridore estu batean utziz, intimidazioa, espazioaren inbasioa, mugimendu askatasun falta eta espazioaren jabe sentitzen ez direla interpretatzera gonbidatzen duelarik

6.2.2. Taldeko marrazkiak

Ikaslegoaren banakako egoera errealitatea ulertu ondoren, patioei buruzko beraien hobekuntza proposamenak ezagutu nahi izan dira. Horretarako “beraien patio ideala eta honek izan beharko lituzkeen elementuak irudikatzeko eta antolatzeke” eskatu zitzaizkien, taldeko sortze prozesu bat aurrera eramanez, gelako arbelean genero bakoitzeko marrazki kooperatibo bat eginez (4. *eranskinean*). Ondorengo taulan ikasleek sortutako muralean ikusgai dauden elementuen sailkapena egin da. Lehendabizi, neskek eta mutilek, batak besteak sortutakoaren emaitza ikusi gabe, irudikatu dituzten elementuak islatu dira. Jarraian, neskek eta mutilek, hurrenez hurren, taldeka irudikatu dituzten elementuak:

PATIOA DISEINATZEN	
EGILEAK	POPOSAMENAK
PARTEKATZEN DITUZTENAK	Trukemea/Tokea, Skate park, Frontoia, Ispilu gela, Rokodromoak, Jostailuak, Tennis pista, Material gela, Deskantsu lekua, Zelai “librea”, Irakasleentzako, Begirale txokoa, Txikientzako lekuak (birritan), Komunak, Botikina (birritan) Liburutegia, Igogailua (ibiltzeko zailtasunak dituztenentzat)
NESKENAK	Belarra, Zuhaitzak, Kulunkak, Tirolinak, Txirristak , Alkoholik gabeko taberna-bokata denda, Igerilekuak, Labirintoak, Goma-aparezko kubo handi bigunak, Futbol eta saski zelaiak, Ohe elastikoak, Zooa
MUTILENAK	Boloak, Bideojolas simulatzaileak Lasergunea, Ortua, Atletismorako pistak, Zinema aretoa, Pilota handiak barruan joateko, Patio normala, “Kartzela”, Mutilentzako zigorgunea, Neskentzako gune TXIKIA (birritan)

5. taula: Arbeleko irudietako datuak

Taldeko marrazkien Interpretazioa egiteko bi ikerketa tresna erabili dira; alde batetik, marrazkiaren argazkietan ikusten diren elementuen behaketa eta hauen zerrendaketa, eta bestetik, sortze prozesu bitartean hurrekin izandako elkarrizketan esandakoa jasotzeko erabili den jarraipen koadernoak.

Lehenik eta behin, generoaren araberrako bereizketarik egin gabe, neska eta mutilek komunean marraztu dituzten diseinu elementuak aztertuko dira. Zati honen interpretazioa hasi bezain pronto, elementu aipagarria ikusi daitezke. Izan ere, ikastetxe gehienetan era

hegemonikoan jolastoki diseinuan agertzen diren elementuak marraztu dituztela. Hau da, futbol eta saski baloi zelaiak irudikatu dituzte, bai mutilek, bai neskek.

Aipagarria da, dudarik gabe, haurren jolastoki eta jolastorduekiko duten ikuskeran futbolak duen pisua. Hain zuzen ere, bi irudiak hartzen baditugu, futbol zelaia zazpi aldiz irudikatu dute; hirutan neskek eta lau aldiz mutilek.

Bestetik, gaurko ikastetxean dauden elementuak alde batera utzita (bi horiek ia eremu guztia okupatzen dute), ikasleak bat datoz, belarra, zuhaitzak, kulunkak, tirolinak, txirristak, alkoholik gabeko taberna edo bokata denda, igerilekuak, labirintoak, goma-aparrezko kubo handiak, ohe elastikoak eta animalien presentzia edo zoo txikia nahi dituztela. Zalantzarik gabe, beraien irudimen eta sormen agortezinean otutzen zaizkien ideiak ez direla beti errealitate bihurtzeko modukoak, baina agerikoa da, komunean aukeratu dituzten elementu gehienenen kokatzea bideragarriak direla eta batzuk, hain onuragarria den naturarekiko kontaktuarekin lotuta daudela.

Mutilek bakarrik marraztutakoa:

Atal honetan, mutilek bakarrik marraztu dituzten irudiak isolatu dira. Beraz, hauek marraztutakoa eta jarraipen koadernoan jasotakoari adiera emango zaio.

Murala hornitzen dituen elementuei begira, boloak, bideo-jolas simulatzaileak, lasergunea, ortua, atletismorako pistak, zinema aretoa eta barruan joateko egiten diren pilota erraldoiak aukeratu dituzte. Beratan, ikus daiteke teknologiaren eta ikus-entzunezko tresnen presentzia argia mutilen desioetako aisialdirako guneez idealean. Oraindik ere, mutilenean, nesken egunerokoan baino, asti gehiago okupatzen dute teknologian eta, batez ere, bideo-jolasetan oinarritutako aktibitateak. Komunean aipatu dituzten elementuez gain, lau osagai bereiztu dira adierazgarrienak direla ulertuta. Lehenik, gaur eguneko patioa (dagoen bezela) irudikatu dute eta batzuk, dagoen moduan uztea gustatuko litzaiekela aitortuz; mutilak, neurri batean, jolastorduetan dituzten bizipenekin eroso daudenaren seinale.

Bestetik, kartzela eta mutilentzako zigorgunea ere irudikatu dituzte. Zehapenerako bi eremu bereiztu dituzte, zigorraren ideiarekin presentzia nahiko errotuta dutela erakutsiz. Gainera, zigorgunea "mutilentzako" dela argitzen dute, jarrera desegokien egileak mutilak direla onartuz. Ez dute neskek zigortzeko txokorik deskribatzen. Honetatik, ondorioztatu daiteke, irakasleek mutilen zenbait jarrera zigortzen dituztela, agian, patioaren diseinuak eta bertan sustatzen diren jarduerak generoen araberako rolen bereizketa sortzen dutelako. Hau da, tarte honetan mutilek duten protagonismoari, aisialdiaren dinamikaren alderdi txarrak ere atxikitzen zaizkio, nesken rola bigarren maila batean geldituz; lekuko, erasotu, pasibo...

Azkenengoz, espazioaren banaketan genero desoreka frogatzen duen elementurik adierazgarriena ikusi daiteke mutilen irudian. Mutilek bi karratu txiki marraztu dituzte (beste kide batek marraztu duenaren jakitun ez direla aipatu dute elkarrizketan) nesken jolas gunea dela adieraziz. Gainera, jardueran erakutsi den jarrerari erreparatuz, aipatzekoa da egitekoa burutzeko zailtasunak handiak izan direla. Ikasleen arteko elkarrizketa, oso puntualki eta era laburrean baino ez da egin, antolakuntza eta jarrera zuzenketak etengabe egin behar izan direlako. Mutil batzuk buru-belarri aritu dira arbeleko irudian ekarpenak egiten, beste asko jardueran interes askorik erakutsi ez duten bitartean (hauek futboleko aritzen diren mutilak izan dira gehien bat). Neurri handian, ulergarria da mutil askok nagusitzen den jardueraren protagonistak izanik, nolabaiteko aldaketak proposatzean eta txikitatik inposatu zaigun futbolarekiko zaletasuna kolokan jartzeko intentziorik ez izatea.

Neskek bakarrik marraztutakoa:

Neskak marrazteko txandan, berriz, mutilekin gertatu ez bezala, margoak hartu eta guztiak beraien artean antolatu dira hasieratik. Agian, jolastorduen ikuspegiari “buelta bat” emateko ideia eta, beraien egoera aldatzeko gogoak gaiarekiko interes handiagoa piztu die. Baliteke ere, patioan, zein ikasgelan egunero erakusten duten jarrera orokorraren emaitza izatea. Beraiek ahalbidetutako dinamika, elkarrizketaren jarria eta giroa aproposa izan zen.

Honen emaitzak azaltzeko lehenik eta behin, irudikatutakoa aztertuko da eta, ondoren, elkarrizketan jasotakoari emango zaio adiera. Kirol eta jolas ezberdinak marrazteaz gain (tenis pista, trukemea, skate parka-a...) adierazgarri bezala aukeratu diren elementuak markatu dira. Neskek igogailua (ibiltzeko zailtasunak dituztenentzako), txikientzako lekuak (birritan), irakasleentzako begirale txokoa, komunak, botikina (birritan), irudikatu dituzte. Muralean zazpi elementu marraztu dituzte, auto-zaintza, elkar-zaintza eta besteekiko zaintzaren ildotik, mindutakoen, txikien eta irakasleek ikasleekiko babesan adiera handia jarri. Izan ere, June Fernandezek, Lucía Martínezek eta Pablo Vidalek (2014) diotenean sustengatuz, feminizatuak izan diren jolasak zaintza lanen imitazioan oinarritzen dira askotan. Hau da, intimitatea eta harreman afektiboetan oinarritutako jolasak (zaintza jolasekin lotzen direnak). Hau da, norberaren eta ingurukoaren ongizatea aintzat hartzen dutela argi ikus daiteke. Bestalde, neskek mugimendu gutxiago eta lasaitasunez egotea ahalbidetzen dituzten guneak ere marraztu dituzte, esate baterako, liburutegia eta deskantsu lekua. Liburutegia, oro har, ikastetxearen eraikinen barruan imajinatzen dugu eta ez jolastokian, baina eremuaz haratago, deigarriagoa da aisialdirako tartean neska batzuk, borondatez irakurtzeko aukera eskatzen dutela. Halaber, deskantsu gela irudikatzeak ere, adierazten du mugimendu gutxiko eta

jarduera fisiko eskaseko aisialdia burutzeko aukera aldarrikatzen dutela, beharbada aisialdirako behar ezberdinak kontuan hartzen dituztelako edota beraien burua jolastorduan burutzen diren jardueretik baztertuak sentitzen direlako.

Azkenik, zelai "librea" irudikatzeak ezkutuan duen paradoxa azpimarratzea beharrezko egiten da. Ez al da librea jolastokia definizioz? Marko teorikoan aipatu den bezala, patioaren diseinuak kirol zehatz batzuen praktikak eta gizartean ematen den espazio banaketa sexista indartzen du. Beraz, zentzuzkoa da, neskek jolastorduari atxikitzen zaiion "askatasuna" ez hautematea, eta era horretan, jarduera askeagoak burutzeko eremua marraztea. Jardueran murgilduta emandako interakzioan eta elkarrizketan erantzun, aitorten eta iruzkin esanguratsuak azalera dira: *"Jolastorduan aspertzen gara futbolarekin zelai guztia okupatzen dutelako. Nahiago dugu Covid egoerak eragindako baldintzekin jarraitzea futbola itzultzea baino"*. *"Jolastokia soilik futbolerako da"*. *"Ezin gara zelai erditik pasatu"*. *"Oihu egiten digute zelaitik pasatzen garenean: Hau futbolerako da! Joan saskibaloiz zelaia!"*. *"Beste batzuetan baloiarekin jotzen gaituzte (mutilak iraintzen dituzte haserre)"*. Gainera, irudi indibidualetan zenbait neskek islatu dituzten larderia eta intimidazio kasuei buruzko iruzkinak egin dituzte: *"Oihu egiten digute zelaitik pasatzen garenean: Hau futbolerako da! Joan saskibaloiz zelaia!" Beste batzuetan baloiarekin jotzen gaituzte!"*

7. ONDORIOAK

Txostenaren atal honetan, GrAL-erako aukeratutako gaiaren garrantzia, erabakitako helburuen betetzea, emaitzen sintesia, jarduera jarraipenaren gako aipagarrien hausnarketak, Marko Teorikoarekin uztartzea, hezkuntzari egindako ekarpena eta emaitzen baliagarritasuna ondorioztatuko dira hurrenez hurren.

Irakaskuntza-ikaskuntza mailan, etengabeko egokitzapena bermatze aldera hezkuntza komunitatean ahalegina egiten da, baina eginahalak ez dira ikastetxeetako eremu guztietan neurri berean ematen. Eskola guztietan, oro har, atentzio gutxiago jasotzen duen ikaskuntza espazio bat aurki dezakegu; Jolastoki edo patioa hain zuzen ere. Hezkuntza formalaren antolakuntzari erreparatuz, eta ikastetxe, eskola edo ikastolen ezberdinen idiosinkrasia aintzan hartuta, goizeko jolastorduek eta jantoki orduetan sortzen direnek asteko ordutegiaren 7-8 ordu inguru hartzen dituzte. Beraz, patioa aztertzea, gabeziak ezagutzea eta kritikotasunez hobekuntzarako bidea hartzea garrantzitsua bilakatzen da. Oraindik ere aurkitu ditzakegu jolas eremu ia guztia okupatzen duten hormigoizko futbol zeiai erraldoiak. Jolastokiaren diseinu hau, hainbat hamarkadetan kirolean oinarritutako dinamika hegemonikoki iraunarazten du. Patio hauek ez dira haurren benetako interesetan ezta beharretan oinarrituta eraiki, ez dira aukera aniztasunetan aberatsak, ez dira haurrentzako estimulatzailak, irakasleen jagoletza erraztean oinarritzen dira, eta eremuaren partekatzea eta kontrola gehiengo maskulinoaren esku gelditzen da, gizartean espazio kontrol patriarkala betiketuz eta neska gehienek zein kirol horiek praktikatzeko ez dituzten mutilen aisialdia pasibo bihurtuz.

Aukeratutako helburuei begira, lehenik eta behin, helburu orokorrei dagokionez, lehenengoa patioen diseinua androzentrista dela esaten dituzten teoriak baieztatzea edo ezeztatzea izan da. Kasu honetan, bistakoa da teoriak azpimarratzen duten ikuspegi maskulinizatua hori errefusatzeko erabat aldentuta, ikerketa honetan guztiz baieztatu dela teoriak sustengatzen dutena. Aurretik aipatu den bezala, patioen diseinuak praktika oso zehatzak bultzatzen ditu, praktika horiek gizonei atxikitzen zaien jardueretan oinarrituta daudela ezagutzen delarik (nahiz eta batzuetan horretan ez erreparatu).

Lehenengo helburua lortzean bigarrena ere frogatu egin da. Izan ere, inkestetan, marrazkietan eta jarraipen koadernoan literalki jaso diren iruzkinetan ikusi daiteke patioen diseinuak sortzen duen sailkapen nabarmenena neska eta mutilen artekoa dela, hierarkia bat sortuz eta jolastokiak generoaren aldetik aisialdia baldintzatzen duela erabat baieztatuz. Hirugarren helburua berriz, prozesu guztian bermatu da, patioaren diseinuarekiko umeen iritziak, beharrak eta ikuspuntuak ulertzea ezinbestekoa izan delako ikerketaren izaera eta

ikuspegia definitzeko. Hau da, Ikasleak jolastokien protagonista diren heinean ikerketaren ardatz bezala finkatzea ezinbestekoa izan da.

Aldiz, berariazko diren helburuei helduz, marko teorikoa eraikitzerako orduan, patioaren diseinuari buruzko gaur egungo errealitatea eta horren inguruko gaur egungo teoriak ezagutu dira. Hipotesiak anitzak diren arren, azkenengo hamarkadetan eraikitzen ari diren teoriak norabide berdintsua daramate. Patioen diseinua kasik era hegemonikoan, duela berrogeita hamar urte inguru kirol praktikan funtsatu zen aisialdiaren eredian oinarritzen da. Diseinu hau zurruna izanik bertan ematen diren jarduerak erabat baldintzatzen ditu, aukera dibertsitatea txirotuz. Euskarri teoriko honetan gaur egungo errealitatea eta honi buruzko teoriak ezagutzeko aukera eskaini da. Errealitate hau, bigarren helburu espezifikorekin eta azkenengo helburu orokorrarekin lotzen da; jolastorduan genero ezberdineko ikasleen beharrak eta nahiak zeintzuk diren ezagutzea hain zuzen ere. Izan ere, aipatutako diseinuak futbolaren praktika bultzatzen du, gizarteak mutilei egotzi dien praktika izanik.

Beste ildo batean, patioari buruz Hezkuntza Komunitatearen bi agente garrantzitsuenen iritzia ezagutu nahi izan da; kasu honetan, irakasle eta ikasleena. Irakasleen iritzia espresuki diseinatu den inkesta baten bitartez lortu da. Inkesta hau, espezialitate ezberdinetako eta patioan zaintzak egiten dituzten irakasleei zuzendu zaie, hauek emandako iritziei balioa handia onartzen zaielarik. Ikasleen kasuan, alde batetik, irakasleekin egin den bezala, inkesta espezifikoko bat diseinatu da beraien iritzia lehen eskutik ezagutzeko. Bestetik, inkestaren emaitzak eta marko teorikoan jasotakoa uztartuz, hauek kontrastatzeko, haurren marrazkia baliabide bezala erabili da. Irudiak jasotzean zein emaitzak aztertzean, marrazketak Lehen Hezkuntzako ikasleriaren iritzi eta ikuspuntuen adierazpenerako tresna baliogarria dela frogatu da. Egia esan, iritziak idatziz jaso direnean kontraesanak ugariak izan dira, marrazkietan eta hauen jarraipenean ikerlariarekin sortu diren elkarrizketetan emaitzak, eta ikasle bakoitzaren zein generoen bitartez banatutako taldeen ikuskera era bat datozen bitartean.

Jardueretan jasotako gertaera, iruzkin eta emaitzarik garrantzitsuenei erreparatuz, interpretazio kuantitatiboa duten emaitzak hartzen badira (galdetegi-inkesta), ondorioztatze aipagarrienak irakasle eta ikasleen adostasuna erakusten dutenak izan dira. GrAL honetan planteatzen den patioaren diseinu eta kasuistika analisiaren beharra indartzen duen erantzunik aipagarriena da, bai irakasleen, bai ikasleen gehiengo nabarmenak estimulu eta aukera gehiago eskaintzen dituen patioaren desioa erakutsi dutela. Izan ere, aipu bezala, esan behar da, talde marrazkian ere, oso argi utzi dute ikasleek beraien patio ideala egun eskaintzen zaienarengandik oso aldentuta dagoela. Gainera, adostasunen harian, hurrek

eta irakasleek onartu dute futbolak jolastokiaren eremurik handiena eta zentrala hartzen duela, jolaserako beste espazioak inbaditzen dituelarik. Praktika honi aitortu zaion protagonismoarekin, hezitzaile zein hezituek adierazi dute futbolearen aritzen diren ikasleriaren gehiengo nagusiak mutilak direla, neskak soberan dauden izkina, zirrikituetan, gradetan ostrazismora kondenaturik daudelarik.

Emitza kuantitatiboak eta kualitatiboak uztartu diren jardueran; haurrek egindako bakarkako irudian, alegia, oso aipagarria da ikasleriaren gehiengoak futbolaren presentzia islatu duela (nesken irudietan are gehiago ikusi daiteke). Kirol honen praktika bermatzeko pentsatuta dagoen diseinuak, aldi berean, mutilen jarduera aktiboa ziurtatzen du, nesken aisialdia pasibo bihurtzen duen bitartean, eta ikasleek horrela adierazi dute marrazkietan.

Bestalde, generoaren arabera sortutako taldeetan egindako arbel muralean, bai neska, bai mutilek futbol zelaia marraztu dute. Mutilak jarduera honetan dinamika eta espazioa menderatzen dituzten heinean beraien patio ideala irudikatzean elementu hauek presente izatea zentzuzkoa ematen duela, baina orduan, zergatik agertzen dira futbol zelaiak nesken patio idealean? Galdera hau ardatz bezala hartuta elkarrizketa hau sortu da: *“Marrazketa jardueran zehar futbolak eta mutilek espazioa ukatzen dizuetela esan duzue behin eta berriro; modu txarrean (oihuka, arrazoiketarik gabe eta baloiarekin kolpeka) patioaren erdigunetik botatzen zaituztela eta, futbola gorrotatzera ere heldu zaretela. Zergatik marraztu duzue futbol zelaia zuen patio idealean?”* Beraien erantzuna oraindik ere harrigarriagoa izan da: *“Futbol zelaia mutilei ukatzen badiegu, ez zen bidezkoa izango, izan ere, beraiek gurekin egiten duten bezala guk ere egin behar dutena inposatzen egongo ginateke. Gainera, Alaiari futbola gustatzen zaio!”*. Beraz, ulertu daiteke, neskek jolastorduan bizi duten bidegabekeriaren jakitun direla, eta gatazkak, liskarrak eta konfrontazioa ekiditeko beraien patua etsipenez onartzen dutela. Mutilek aldiz, emaitzen analisisian aipatu den bezala, muralean bi eremu txiki karratu marraztu dituzte “nesken lekua” izenarekin, beti ere, neskek jolastokian “behar” duten, eta erabiltzen duten espazio txikiari erreferentzia eginez.

Talde-marrazkia bukatzean, mutilek ez bezala, neskak bere irudia ezabatzen eta arbela garbitzen gelditu dira. Ekimen hau ez du neska bakar batek bere kontu hasi, baizik eta neskak, talde bezala, eta beraien artean hitz egin gabe gauzatutakoa. Berriro ere, gizarteak haurtzarotik mutil zein neskengan errotzen dituen jokabide desorekak agerian gelditu dira. Mutilek, proposatu zaien zeregina bukatzean ospa egin dute eta neskak, era berean, zeregina bukatzean beraien kontuetara bueltatu dira. Kasu honetan gakoa da, neskentzat barneratuta dituzten eginkizunen artean hauetako bat garbiketa dela; beste pertsonen ongizatea eta zaintza ideia kontuan dutelarik (kasu honetan irakasle-ikertzailearena).

Gainera, egun eguzkitsu epela egiten duen arren, neska gehienek jolastorduan gelan gelditzeko baimena eskatu dute, patioan ezer gutxi egiten dutelako. Eskaera hau, askotan errepikatzen da, baina kasu honetan, onartu dute, Covid-ak eragindako murrizketekin eta arauekin gehiago lotzen dutela jolastokira bertaratzeko gogo urria. Nolanahi ere, eskakizun hau, neskek egun jolastoki eremuarekin erosotasun eskasaren seinale da, baita ikasgela beraien protagonismoa patioan dutenaren aldaratuz handiagoa denaren adierazle.

Marko teorikoaren eta GrAL-aren emaitzen uztarketa hasteko, lehendabizi euskarri teorikoan adierazi den bezala, patioaren diseinuak espazioaren banaketa, bertan ematen diren jarduerak, espazioaren kontrola eta protagonismo hierarkizatua baldintzatzen ditu, hauei atxikitzen zaien balioak azaleratuz. Aipatu den bezala, gizarteak belaunaldiak igaro ahala iraunarazten dituen balioak erreproduzitzen dituzte eta horrela behatu daiteke txostenaren emaitzetan. Zalantzarik gabe, sustengu teorikoaren eta ikerketaren emaitzen arteko parekotasun biribilena eman da, jolastokien eraginkortasun ezaren arazoak, generoaren arabera espazioaren erabilera eta banaketa, eta neskengan (batez ere) bultzatzen duen pasibotasuna aztertu direnen ataletan. Guzti hauek, hasi eta akabo baieztatu dira ikerketetan. Bestalde, ikerketaren mugak onartuz, jolastorduak haurengan dakartzan onurak teorikoki justifikatu diren bezala, ezin izan dira guztiz frogatu ikerketan zehar. Egia da, egiaztatu dela, ikasgelatik at sozializatzeko, hizkuntzan trebatzeko, pentsamendu egokitzapenak egiteko eta emozioak kudeatzen ikasteko esparru aproposa dela, baina onura edo kalte fisikoak antzemateko, analisi honek denbora eta jarraipen luzeagoa behar du (jarduera fisikoaren eta pasibotasunaren alderdi positiboak eta negatiboak ezagutzen diren arren).

Txostenak hezkuntzari ekarri diezaiokeen ekarpenei begira, ikerketa honek eremu hezigarritzat ulertu ez diren jolastokien garrantzia azpimarratzeko balio du. Egun mahai gainean jarri den gai honi heltzeko baliabidea izan daiteke; izan ere, jaso diren datu, hausnarketa eta emaitzak gure herrialdeko hiririk jendetsuenean kokatutako ikastola baten errealitatea ezagutzeko informazioa eguneratua eskaintzen da, eredu esanguratsua dela ulertuta. Horretaz gain, osasuna, hezkidetzeta, hezkuntzaren garrantzia, eskaintza parekotasuna eta hainbat gizarte arazo kritikotasunez jorratzeko eta hauei bozgorailu jartzeko pentsatu da.

8. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Dudarik gabe, GrAL-a egiteko bete beharreko baldintzek (denbora, txostenaren espazioa...), ikerketan esperientzia gutxi izateak eta hau burutzeko aprobetxatu den praktikaldiaren mugek, neurri batean, bai prozedura, bai emaitzen kalitatea ere baldintzatu dituzte.

Hasteko, iaiztik Covid-19aren eraginez arrastaka daramagun egoerak ikergai den gaia jorrazteko oztopoak ezarri ditu. Jolastokien egokitasuna kolokan jartzen zuen errealitatea aurreko bi urteetatik aztertu du ikerlariak. Beraz, aurten prozesua garatzeko diseinatu diren jardueretan irakasle eta ikasleentzako testuinguraketa egitea beharrezkoa izan da. Testuinguru kokatze honetan jolastokietan protagonista nagusiak direnei inkesta erantzuteko orduan, aurreko urteetako jolastorduek gogora ekartzeko ahalegina eskatu zaie. Onartzekoa da, memoria bertute ukaezin duten arren, iragana gaurko jolastorduren errealitatearekin kutsatu izana, inkesten erantzunen balioa neurri batean txirotuz.

Pandemiaren ikerketan inposatu dituen eragozpenekin bukatzeko, musukoak, eremu mugaketak, korridoreetako protokoloak eta jolaserako materialaren debekuak jolastorduen funtzionamendu normala erabat aizundu dute. Honen eraginez, aurrera eramandako jarduerak, ikasleen iritzien balioestea eta aurretik eskola ezberdinetan egindako behaketak garrantzia handiagoa hartu dute.

Beste hobekuntzarako esparruei arreta jarritz, esperientzia ezak duen garrantziari tarte bat eskaintzea derrigorrezko bihurtzen da. Alde batetik, lagin finko bat ziurtatzeko teknikak ezagutzea beharrezkoa da. Ikerketarako prestatu diren jarduera ezberdinetan zereginak burutu dituzten pertsona kantitatea, maximo eta minimoa, aurkitu ditzazketen ulermen arazoak eta prestatutako tresnetan agertu daitezkeen akatsak kontuan hartu behar dira, eta ez da beti hori ikerketan zehar bermatu. Esate baterako, ikasleen lagina lortzeko orduan, jarduerak bolondreski egitea planteatu da hasieran, baina gutxienezko lagin adierazgarria ez lortzeko beldurrak, patio idealaren murala marraztea eskatzen zuen jarduera ezik, beste guztiak eskolako eginbehar bezala birplanteatu dira.

Ildo berean, erantzunak eta sortutako irudiak jasotzeko epeak azalpenetan ondo finkatu behar dira. Galdetegien kasuan, jasotako datuen azterketa hasita zegoela, erantzun berriak heldu dira, aurretik kudeatutako emaitzak baliogabetuz. Hau da, prozesua errepikatzea saihesteko kontuan hartu beharreko ataza da. Irudi indibidualak ere, praktikaldia bukatuta

zegoela, marrazki gehiago heldu dira, plangintzan finkatutako emaitzen interpretazio fasea luzatuz.

Eskarmentu gehiago izanez gero, denbora errealean edo zuzenean burutu den jardueretan sortu diren nondik norakoak aurreikusteko trebakuntza aipatu behar da. Talde-lanean mutilek, eta gero neskek beraien patio ideala irudikatu behar zuten jarduera, aldeztatik aurretik prestatuta zegoen. Saio horretan, mutil batzuk marrazten zuten bitartean libre zeudenekin (ez zegoen guztiak aldi berean marrazteko lekurik) islatzen zutenari buruzko elkarrizketa bat egitea pentsatuta zegoen, baina hartu-eman horren lekuan, iruzkin gutxi batzuk eta jarduera bukatzeko jarrera minimoak ziurtatzeko eskaera eta aginduetan xahutu zen denbora. Mutil askorentzat aisialdi hutsa izan zen. Horrelakoak gertatzea aurreikustea beharrezkoa da, prestatutakoaren emaitza esanguratsuak izan daitezen; izan ere, paradoxikoki ekintza esanguratsua bihurtu zen, baina genero ezberdinetako haurrek dituzten jarrerak aztertzeko, ez jolastoki idealarekiko duten iritzia ezagutzeko.

Muga eta hobetzekoak laburbilduta, ikerlariak gaia estuki heltzeko hauteman duen *handicap* nagusia aipatzea legezkoa dela erabaki da. Hamarkadetan zehar patioa ezer gutxi aldatu den moduan, bertan ematen diren bizipenak ere ez dira gehiegi aldatu. Ondorioz, norberaren esperientzia gogoratzea eta egungo errealitatera ekartzea saihetsezina da. Ikerlaria gizonezkoa, futbolzale amorratua eta jolastorduak futbolerako tarte bezala ulertzen zuen haurra izandakoa da; hori izan da, hain zuzen ere, aurretik izendatutako *handicapa*. Ikerketa honek, zentzu batean, patioen diseinuak betikitzen dituen bidegabekeria matxistak eta desoreken aurkako esku-hartzearen premia aldarrikatzen du, gizon jaiotzearen ezberdinkeraren alderdi pribilegiatua bizitzea egokitu zaiola ulertu eta onartuz. Ikuspegi inposatu partzial horretatik aldentzeko nahitaezko deseraikitze prozesu bat bizi da. Antzeman dira mutiletan, patio "ireki" baten aldeko edo nesken egoera kaskarra adierazten zaienean beraien burua erasotua ikusten dutela, hezitzaileek patioetan ematen den egoeraren errua leporatzen dietela sentitzen dutela (ikerlariak ere horrela hartzen zuen) eta ez da hori, inondik inora, iraultza honen xedea.

Bukatzeko, hasieran aipatu diren mugek lanaren jarraipena mozten dute, noski. Egia da, gehiegizko informazioa lan txiki batean barnebiltzea erronka handia izan dela. Dena den, islatu diren patio diseinu arazoak aztertzeaz gain, hauei bira emateko zein ekiditeko estrategien proposamenak planteatzea eta aurrera eramatea oso baliagarria otutzen da. Gainera, matxismoa arazoak hezkuntzaren eta gizartearen esparru ezberdinetan kritikotasunez aztertzeko gizon feministen ikuspuntuari adiera ematea interesgarria liteke, aldeztatik aurretik, edozein irakasleren ardura eta erantzukizuna izan beharko lukeela ere ulertuta.

9. BIBLIOGRAFIA

- Andrés, S. (2019). *El patio escolar como aula exterior*. España: Alaya. <http://www.alaya.es/2019/01/14/el-patio-escolar-como-aula-exterior/>-tik berreskuratua.
- Antolín, M., Gil, V., Olaizola, M., Navarro, V., Iglesias, I., eta Rodríguez, A. et al. (2017). *Elkartoki*. https://wearetipi.co/public/docs/patioa_denona_da.pdf-tik berreskuratua.
- Artigas, M. (2016). El patio: una transformación necesaria. *Escuela*, (2), p. 7-8.or. Auzmendi, J.M., Azpirotz, A., Gorostizu, A., Mendizabal, A. eta Muñoa, A. (2018). Eskolako patioa. Ikasle guztiei leku egin nahian. *Hik Hasi*, 224, 11-17.
- Barrios, R.F. (2011). La capacidad de representación. *Psicología del Desarrollo y del Aprendizaje*. <http://psicodesarrolloaprendizaje83solano.blogspot.com.es/2011/04/la-capacidad-de-representacion.html>-tik berreskuratua.
- Bautsita, A. B., Rayon, L. R., eta De las Heras, A. M. (2018). Imágenes experienciales y foto-elicitación en la formación del profesorado. *Educatio Siglo XXI*, 36.
- Bonal, X. (2014). *Cuadernos para la coeducación. Cambiar la escuela: la coeducación en el patio de juegos*. Universitat Autònoma de Barcelona: Institut de Ciències de l'Educació. <https://bit.ly/2l6XmVI>-tik berreskuratua.
- Canning, N. (2010). The influence of the outdoor environment: den-making in three different contexts. *European Early Childhood Education Research Journal*.
- Cols, C., eta Fernández, P. (2016). Educación, tierra y naturaleza. In *Educación, tierra y naturaleza*. Barcelona: Asociación de Maestros Rosa Sensat. (Kongresua). <https://elnousafareig.files.wordpress.com/2016/12/educacion-y-comunidad.pdf>-tik berreskuratua.
- Dyment, J. E.; Bell, C. (2008). Grounds for movement: green school grounds as sites for promoting physical activity. *Health educ Res*, 23 (6): 952-962. In Bruchner, P. (2017). *Bosquescuela. Guía para la educación infantil al aire libre*. Balentzia: Ediciones Rodeno.
- Early Head Start National Resource Center (2013). Supporting outdoor play and exploration for infants and toddlers. Washington: Early Head Start National Resource Center.
- Eisner, E.W. (2004). *El arte y la creación de la mente*. Barcelona. Paidós.
- Elkartoki. (2016). Elkartoki proiektua: Patioa denona da. *Aldiri*, 3(27)
- Epstein, D., Kehily, M., Mac an Ghail, M., eta Redman, P. (2001). Boys and Girls Come Out to Play: Making Masculinities and Femininities in School Playgrounds. *Men and Masculinities*, 4(2).

- Eusko Jaurlaritzak. (2013). *Hezkuntza sisteman hezkidetzak eta genero indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. <https://bit.ly/2liDk94> -tik berreskuratua.
- Fdzila, N., & Said, I. (2010). The trends and influential factors of children's use of outdoor environments: A review. *Procedia- Social and Behavioral Sciences*, 38, 204-212. or.
- Fernández, June. Martínez, Lucía eta Vidal, Pablo (2014). *Sexismoa joko eta jostailuen 2013 publizitate kanpainan, sexismoa antzemateko tresna*. Gasteiz: Emakunde. 2019ko urrian berreskuratua, http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_informes/emakunde/adjuntos/informe.33.publizitatea.eus.pdf-tik berreskuratua.
- Fjortoft, I. (2001). The natural environment as a playground for children: The impact of outdoor play activities in pre-primary school children. *Early Childhood Education Journal*, 29(2).
- Fjortoft, I. (2004). Landscape as playscape: the effects of natural environments on children's play and motor development. *Children, Youth and Environments*, 14(2).
- Foucault, Michel (1979): *Vigilar y castigar. Nacimiento de la prisión*. Siglo XXI, Madrid.
- Fresnedo, I. eta Gabilondo, J. (2018). *Betaurreko moreen gida*. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Gallastegui, I. (2018). La igualdad llega a los patios de colegio: ¿es el fin del fútbol en los recreos?. *El Correo*. <https://www.elcorreo.com/sociedad/igualdad-llega-patios20180326164849-nt.html>-tik berreskuratua.
- Garay, B., Vizcarra, M. T., eta Ugalde, A. I. (2017). Los recreos, laboratorios para la construcción social de la masculinidad hegemónica. *Teoría de la Educación. Revista Interuniversitaria*, 29(2).
- García, P. (2016). *Proyecto MICOS. mREG madrid REGENERA*. Madrid. <http://madridsalud.es/wp-content/uploads/2016/04/MICOSRegeneracion-urbana.pdf> -tik berreskuratua.
- García, P., Urda, L., Leal, P. y De Blas, M. (2017). Estudio micos: entornos escolares saludables. Bases para una estrategia de intervención de patios, accesos y entornos escolares. Proyecto MICOS. Madrid: Ayuntamiento de Madrid.
- Gardner, H. (1994). *Educación artística y desarrollo humano*. Barcelona: Paidós.
- Giménez, M. (2018). El patio del colegio, donde se empiezan a sembrar las desigualdades de género. *Eldiario.es*. https://www.eldiario.es/cv/colegio-empieza-sembrar-desigualdad-genero_0_820668173.html-tik berreskuratua.
- Girón, A. (2016). El patio de mi colegio. *Escuela*, (2), p. 3-4. Hernández, R., Fernández, C. y Baptista, P. (2003). *Metodología de la investigación* (3ª ed.). México: Editorial McGraw-Hill.
- Gray, C. Gibbons, R., Bienenstock, A., Brussoni, M., Chabot, G., Herrington, S., Janssen, I., Pickett, W., Power, M., Stanger, N., Sampson, M., & Tremblay, M.S. (2015). What Is

- the Relationship between Outdoor Time and Physical Activity, Sedentary Behaviour, and Physical Fitness in Children? A Systematic Review. *International Journal of Environmental Research and Public Health*, 12.
- Gras, P., eta Paredes, J. (2015). El recreo ¿sólo para jugar?. *EmásF, Revista Digital de Educación Física*, 36.
- Gutiérrez, A. (2009) La importancia de la educación psicomotriz. *Revista digital innovación y experiencias educativas*, 24, 1-9. <https://core.ac.uk/download/pdf/85002494.pdf>-tik berreskuratua.
- Hargreaves, D. (2002). *Infancia y educación artística*. Madrid: Morata, S. L.
- Hernanández, L. (2010). *Análisis de Actividad Física en Escolares de Medio Urbano*. Madrid: Colección ICD.
- Heziberri (2020) 236/1015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum a zehaztu eta Euskal Autonomi Erkidegoan ezartzen dena. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 21016ko urtarrilaren 15a.
- Jackson, A. W., Morrow, J. R., Hill, D. W. & Dishman, R. K. (2003). *Physical activity for health and fitness*. Champaign: Human Kinetics.
- Jové, R. (2017). *La escuela más feliz*. Madrid: La esfera de los libros.
- Lancaster, J. (1990). *Las artes en educación primaria*. Madrid: Morata.
- Larramendi, I. (2016). Eskoletako jolastokiak eta genero-rolak: Diseinuaren eragina generonortasunaren eraikuntzan. *Aldiri Arkitektura eta Abar*, 3(27).
- Lowenfeld, V. y Britain, W. (1972). *Desarrollo de la capacidad creadora*. Buenos Aires: Ed. Kapelusz.
- Machón, A. (2009). *Los dibujos de los niños. Génesis y desarrollo de la representación gráfica. Un estudio evolutivo*. Madrid: Ediciones Cátedra.
- Marín, I., Molins, C., Martínez, M., Hierro, E., y Aragay, X. (2010). *Els patis de les escoles: espais d'oportunitats educatives*. IPA ESPAÑA. Barcelona. Col·lecció Informes Breus, 31.
- Mårtensson, F., Boldemann, C., Söderström, M., Blennow, M., Englund, J.E., & Grahn, P. (2009). Outdoor Environmental Assessment of Attention Promoting Settings for preschool children: part of salutogenic concept. *Health and place*, 15, 1149-1157.or.
- Mazón, V., eta García, M. (2005). Los recreos más divertidos. *Retos. Nuevas Tendencias En Educación Física, Deporte y Recreación*, 8, 32-42.or.
- Miranda, M., Larrea, I., & Muela, A. (2014). Ikastetxeetako kanpo espazioen kalitatea Haur Hezkuntzan. *Tantak*, 26, 59-76.or.
- Moser, T., & Martinsen, M.T. (2010). The outdoor environment in Norwegian kindergartens as pedagogical space for toddlers' play, learning and development. *European Early Childhood Education Research Journal*, 18.

- Marín, I., Molins, C., Martínez, M., Hierro, E., eta Aragay, X. (2010). *Els patis de les escoles: espais d'oportunitats educatives*. Barcelona: Edició a cura de Fundació Jaume Bofill.
- McDowell, L. (2000). *Género, identidad y lugar. Un estudio de las geografías feministas*. Madrid: Cátedra.
- Munduko Osasun Erakundea (2010). Osasunerako jarduera fisikoari buruzko munduko gomendioak: https://www.who.int/dietphysicalactivity/factsheet_recommendations/es/-tik berreskuratua.
- Pía, M. y Mayorga, M. (2017) ¿Pueden los patios escolares hacer ciudad? Proyecto, progreso, arquitectura (17), 116-13. [Http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=517655470009](http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=517655470009)-tik berreskuratua.
- Pica, R. (2008). 7 Reasons why kids need recess. <https://bit.ly/2HSZdiZ> - tik berreskuratua.
- Pink, S. (zuz.). (2007). *Visual interventions: Applied visual anthropology*. Vol. 4. New York: Berghahn Books.
- Saldaña, D. (2018). Reorganizar el patio de la escuela, un proceso colectivo para la transformación social. *Hábitat y Sociedad*, 11, 185-199. Universidad de Sevilla. <http://dx.doi.org/10.12795/HabitatSociedad.2018.i11.11>-tik berreskuratua.
- Serra, J. (2014). Análisis de la práctica de actividad física durante el recreo escolar en adolescentes de la provincia de Huesca, 31(4), 257-262. Barbastro (Huesca): IES Martínez Vargas eta Zaragozako Unibertsitatea. http://archivosdemedicinadeldeporte.com/articulos/upload/or04_162.pdf -tik berreskuratua.
- Subirats, M., eta Tomé, A. (2007). *Balones fuera. Reconstruir los espacios desde la coeducación*. Barcelona: Octaedro.
- Tonucci, F. (1997). *La ciudad de los niños: un modo nuevo de pensar la ciudad*. Madrid: Fundación Germán Sánchez Ruipérez.
- UNESCO, (1999). *Guía de diseño de espacios educativos*. <https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000123168>-tik berreskuratua.
- Valentine, G. (2003). Boundary crossings: transitions from childhood to adulthood. *Children's Geographies*, 1(1), 37-52. DOI: 10.1080/14733280302186.
- Weisman, L. (1994). *Discrimination by Design. A Feminist Critique of the Man-Made Environment*. Illinois: University of Illinois Press.

10. ERANSKINAK

Oharra:


Hurrengo orrietan agertzen diren grafika, taula eta argazkiak ikertzaileak sortutakoak dira. Marrazkiak berriz, lan honen parte-hartzaileek sortutakoak dira, ikerketaren emaitza moduan erabili izan direnak.

10.1. Ikasleentzako galdetegia

10.1.1. Galdetegia burutu duten 5. mailako ikasleak generoaren arabera

Nola sentitzen naiz:


95 erantzun



10.1.2. Ikasleen galdetegiko 1.galdera eta erantzunak

Futbolean edo saskibaloian aritzeaz gain, patioak jolas ezberdinak egiteko eskaintzen dituen aukerak asko dira.


95 erantzun



10.1.3. Ikasleen galdetegiko 2. galdera eta erantzunak

Mutil eta neska gehienok elkarrekin jolasten dugu jolastorduetan.


95 erantzun



10.1.4. Ikasleen galdetegiko 3. galdera eta erantzunak

Orokorrean neskek espazio gutxiago erabiltzen dute jolastorduetan.


95 erantzun



10.1.5. Ikasleen galdetegiko 4. galdera eta erantzunak

Orokorrean, mutilak gehiago mugitzen dira jolastorduetan neskek baino.


95 erantzun



10.1.6. Ikasleen galdetegiko 5. galdera eta erantzunak

Batzuetan, marrazkiak, koloreztatzeko mandalak edo, klaseko zein etxerako lanak egiten dituztenak neskak dira.


95 erantzun



10.1.7. Ikasleen galdetegiko 6. galdera eta erantzunak

Mutila naiz eta patioan asko mugitzen naiz (*ERANTZUN BAKARRIK MUTILA BALDIN BAZARA)


65 erantzun



10.1.8. Ikasleen galdetegiko 7. galdera eta erantzunak

Neska naiz eta patioan asko mugitzen naiz (*ERANTZUN BAKARRIK NESKA BALDIN BAZARA)


43 erantzun



10.1.9. Ikasleen galdetegiko 8. galdera eta erantzunak

Covid-ak eragindako egoera heldu baino lehen, jolastorduetan patio ia guztia futbolean aritzen zirenek okupatzen zuten.


95 erantzun



10.1.10. Ikasleen galdetegiko 9. galdera eta erantzunak

Garai hartan (Covid-a baino lehen) futbolean aritzen zirenen ia guztiak mutilak ziren.


95 erantzun



10.1.11. Ikasleen galdetegiko 10. galdera eta erantzunak

Mutila naiz eta baloirik gabe ez dakit zer egin jolastorduetan (*ERANTZUN BAKARRIK MUTILA BALDIN BAZARA)


64 erantzun



10.1.12. Ikasleen galdetegiko 11. galdera eta erantzunak

Neska naiz eta baloirik gabe ez dakit zer egin jolastorduetan (*ERANTZUN BAKARRIK NESKA BALDIN BAZARA)


43 erantzun



10.1.13. Ikasleen galdetegiko 12. galdera eta erantzunak

Patioa ezberdina izatea gustatuko litzaidake

95 erantzun




10.2. Irakasleen galdetegia

10.2.1. Irakasleen galdetegiko 1. galdera eta erantzunak

Jolastorduak harremanak sortzeko eta finkatzeko tarte garrantzitsua dira


14 erantzun



10.2.2. Irakasleen galdetegiko 2. galdera eta erantzunak

Eskola askotan gertatzen den bezala, gure ikastolako jolastokiekiko kontzeptua eta hauen diseinua zaharkituak daudela uste dut.


14 erantzun



10.2.3. Irakasleen galdetegiko 3. galdera eta erantzunak

Jolastokiko diseinua, bereziki, futbolaren praktika ahalbidetzen du, kirol hau praktikatzen ez duten ikasleentzako espazio urria gelditzen delarik.


14 erantzun



10.2.4. Irakasleen galdetegiko 4. galdera eta erantzunak

Futbolearen aritzen diren ikaslearen artean, gehiengo nabarmenena, mutilak dira.


14 erantzun



10.2.5. Irakasleen galdetegiko 5. galdera eta erantzunak

Oro har, neskek leku gutxi hartzen (erabiltzen) dute jolastordutako tartean.


14 erantzun



10.2.6. Irakasleen galdetegiko 6. galdera eta erantzunak

Ohartu naiz jolastordu tartetean neska askoren xolasaldia ez dela oso aktiboa (mugimendu gutxikoa).


14 erantzun



10.2.7. Irakasleen galdetegiko 7. galdera eta erantzunak

Baloiaren erabilera mugatzearekin bat nator (egun batzuetan balorik ez erabiltzea, adibidez)


14 erantzun



10.2.8. Irakasleen galdetegiko 8. galdera eta erantzunak

Jolastokiaren diseinua kontuan hartuta (futbito zelaia eta saskibaloia zelaia dira), kontraesana deritzot baloia debekatzea; eremuren diseinuak baloiaren erabilera "eskatzen" baitu.


14 erantzun



10.2.9. Irakasleen galdetegiko 9. galdera eta erantzunak

Jolastokiaren diseinuak ez ditu bertan burutzen diren jarduerak baldintzatzen.


14 erantzun



10.2.10. Irakasleen galdetegiko 10 galdera eta erantzunak

Ekitatea, aukera anitzak eta parte hartze handiagoa eskaintzen eta bultzatzen dituzten patioak beharrezkoa dire uste dut.


14 erantzun



10.3. Patioko argazkiak

10.3.1. Jolastoki printzipala

10.3.1.1 Jolastoki nagusia eta Covid araudiaren araberako banaketa



10.3.1.2. Jolastoki nagusiko gradak




10.3.1.3. Jolastoki nagusiko aterpeak



10.3.2. Bigarren eraikineko jolastokia




10.3.2.1. Bigarren jolastokiko aterpeak




10.4. Taldeko irudiak (Mutilak eta Neskak)


10.4.1. Mutilen taldeko irudia



10.4.1.1. Marraztutako zigor-lekuak



10.4.1.1. Neskentzako lekua



10.4.2. Nesken taldeko irudia




10.5. Marrazki indibidualak

10.5.1. Futbol zelaiaren presentzia

10.5.1.1. Mutilen marrazkiak




10.5.1.2. Nesken marrazkia



10.5.2. Ziurgabetasuna eta larderia agertzen diren irudiak

1)



2)



10.5.3. Nesken mugimentu eza edo urria (Pasibotasuna)

